

Karkara

karkara.eus

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria · 2017ko urriaren 27a · 388 zenbakia



Zaragueta eskola: 40 urte euskaraz

Hezkuntza publiko euskaldunak 40 urte bete ditu Orion, 70eko hamarkadan irakasle eta guraso batzuk egindako iraultzari esker.

3
Puntua jarrita
Goñuri Unanue

11
Nire honetan
Onintza Aiestaran

23
Elkarrizketa
J. A. Garmendia

28
Erreportajea
J. J. Arrillaga



Gale Bask S.L.

BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lurak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitatea

Kale Nagusia,2 -behea (20810 Orio)
 Tel./Fax: 943 134 717
 Mugikorak: 638 610 343 / 638 610 349
 galebask@hotmail.com

IZARRA ELEKTROGAILUAK

ESKAINZA AZAROA BEREZIAK

lenovo 496€
 SAGUA OPARI
 LABEA + BROTODERABAKA 299€
 SAGU SAGURU 8,99€
 599€
 beko
 TREN 21€
 Kasko Guterri, 48
 Tel: 943 83 36 91
 20810 Orio (Irujoak)

Desatascos LASTER

24 orduko zerbitzua
688 886 536



24 orduko zerbitzua
 Zerbitzua guztia eguneko 24 orduz
 Zerbitzua guztia eguneko 24 orduz
 Zerbitzua guztia eguneko 24 orduz

Desatascos Laster
 24 orduko zerbitzua
 24 orduko zerbitzua
 24 orduko zerbitzua

Dagur erretza 21.4 - 20810 Irujoak - Abasqueñe - Dagur 2 - 20810 Orio - Tel: 943 751 431
 desatascos@desatascoslaster.com - www.desatascoslaster.com

ttipi ttapa

943259695
 ttipittapa.oihane@gmail.com
 Eusko Gudarien,15 - 20810 Orio

Izaskun Estankoa

- .Tabakoa
- .Prentsa
- .Eskola materiala
- .Opariak

Estankoa / Orio
 20810 Orio - Tel: 943 831 211
 Zerbitzua guztia eguneko 24 orduz

JARRI PUBLIZITATEA KARKARAN

688 859 682

388

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27

karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarteak

Erredaktore burua
Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Iñigo Exposito
Iñigo Gaiton
Jon Garate
Asun Garikano
Aiora Larrañaga
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Sonia Albizu

Ale honetako kolaboratzaileak

Aitor Arregi
Eneko Balerdi
Egoitz Dorronsoro
Zigor Esoain
Iñaki Iturain

Diseinua

Saioa Perona

Banatzzaileak

Ibon Berasaluze,
Endika Ruiz (Orioko)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzien erantzukizunik. KARKARAREN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

*Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Goiuri Unanue jarri dio puntua Itziar Olasagastik: **Aurten modan jarri da kolore horia!** Hurrengoari ere jarri dio puntua.*

PUNTUA JARRITA

GOIURI UNANUE ARRUABARRENA (DOINUA: ORAIN HASI BIHAGU)

Aurten modan jarri da kolore horia!

Herriaren itxura oso dotoria.
Irailan izan genuen aldeko zoria,
Kontxa irabazita ho(r)i da umoria!

Iraila hasieran ze grin, ze balore, jostorratz ta hariak arnassen motore.
Nola inoz ez dedan emango amore, mundu berri bat sortuz kolorez kolore.



Hurrengo bertsolaria: Iñigo Exposito

Puntua: Behobia dator ta zuk ze asmo duzu?

Publizitatea kontratazeko:

Karkara
688 859 682 (Sonia)
publizitatea@karkara.com



karkara.eus

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Udaltzainei eskertza

Gutun honekin eskerrak eman nahi dizkiet Mikel Narciso eta Fulgencio Velez herriko udaltzainei, Iturbide kaleko arazoak -batez ere soinuarenak- konpontzen laguntzeagatik. Beren lana ez izan arren, herritarrekiko arreta handia izan dute. Eskerrik asko.

■ Candida Arruti Ezeiza

EAJren metamorfosisa

Orioko EAJk kaleratutako azken aldizkarian hiru esparru hauetan kokatzen ditu etorkizuneko Orioren ardatz sozial eta ekonomikoak:

- Ondare historikoa berreskuratzea.
 - Aisialdia eta baliabide naturalak sustatzea.
 - Arrauna, kultura eta gastronomia.
- Ez du buruhauste handirik Orioko EAJk. Oso pobrea iruditzen zaigu Orioren etorkizuna hiru ardatz hauetan bakarrik planteatzea. Ez ditu aipatu ere egin arrantza sektorea, lehen

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko ize-nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

sektorea, mankomunitatetik landu beharreko estrategiak (ez gara uharte bat)... Kezkatzekoa, benetan.

Zer gertatu da, berriz, EAJk hainbeste aldiz aldarrikatutako Aizperroko industrialdearekin edo Arozenan planteatzen zuten adineko jendearentzako

egoitzarekin? Zergatik ez dituzte orain aipatzen?

Ondarea, aisialdia eta baliabide naturalen ustiapena bultzatzeari dagokionez, hauxe esan dezakegu: baten garaia! Aspalditik dituzue mahai gainean, Motondo berreskuratze proiektua, eta baita Oriako itsasadarraren garapenari begira mahai bat eratzeke proposamena, Aia, Usurbil eta Orioko Udalek elkarlanean jarduteko. Goazen hitzetatik ekintzetara pasatzera! Gure aldetik babesa eta bultzada izango duzue. ■ Orioko EH Bildu

Eskola kirolak 25 urte

Gipuzkoako eskola kirolaren 25. urteurrenaren aitzakia baliatuta, eskola kirolaren aldeko jaialdia ospatu zen irailean Zarautzen. 25 urtez, gogotsu aritu diren koordinatzaile, entrenatzaile, epaile, ordezkari, boluntario eta eskola kirolaren protagonista diren haur eta gaztetxoek lana gorai patzeaz gain, eskola kirola beraren balioa ma-

Lizaso
dekorazioa



Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50
sagasti@sagastileihok.com
Arrantzale kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)



obrak
proiektuak
errehabilitazioak
txostenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
erakinen mantenua

arKitektura

borja agiresarobe lopetegi
herriko-barra 6, behea
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8
xs@xsarkitektura.com



sinergia FISIOTERAPIA
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

hai gainean jarri asmoz.

Izan ere, 25 urteetan zehar, eskola kirola haurren garapen prozesua hauspotzen saiatu da. Talde lana, konpromisoa, errespetua, adiskidetasuna, parte hartzea eta euskara bezalako balioak sustatzeaz gain, ohitura osasuntsu eta bizi estilo aktiboa bultzatuz. Eskola kirola berez ona eta osasuntsu denaren uste orokortu honetan, ordea, egungo eskola kirol eredu auzitan ipini beharra dugula uste dugu EKAP ki-deok.

Herrira etorriaz, badugu jo-puntu bikaina eskola kirol eredu hau hausnartzeko: Multikirol ligaxka.

Ligaxka horrek, haurri hainbat larunbatetan hain ohiko ez diren jarduerak ezberdinak probatzeko aukera eskaintzen dio. Jarduera hauek, alde batetik, gaztetxoaren garapen motorra aberasten du jarduera bakoitzak eskatzen dituen abilezia eta trebetasun anitzak landuaz. Bestetik, bere gelakideekin, neska-mutil zein aniztasun funtzionala duten haur guztiak batera nahastuta aritzen dira. Eta azkenik, badakizue zer? Ligaxka ez du inork galtzen, ez dago markagailurik, ezta sailkapenik ere. Guztiek irabazten dute, irribarreak nagusitzen dira. Ez dakigu horregatik den edo ez, baina tarte honetan ere, ez dira liskarrik sortzen eskola ezberdinen artean... Interesgarria, ezta?

Multikirol ligaxka, aldiz, denbora mugatu batean ematen da soilik, benetakoa edo serioagoa den eskola kirola eskatzen dutenen gosea dela medio. Horren harira, EKAPetik galdera bat

jaurti nahi dugu: Haurren garapenerako benetan onuragarriak diren jarduerak antolatzen al dira? Edo beste batzuen interes eta beharrei erantzuten die? Goi mailako hainbat kirolariak erakutsi digute haur eta gaztetan kirol aniztasunean murgilduta ibili zirela. Hortaz, beharrezkoa al da 8-9 urterekin kirol modalitate zehatz batzuetara soilik mugatzea haurren jarduna? Hau al da betikotu nahi dugun eskola kirol eredu?

Idatzi honen bitartez, beste behin ere, udalari kirol-mahai baten beharra adierazi nahi diogu, gure herriko eskola kirolaz arituko litzatekeen mahai bat, besteak beste. Hausnartu eta eztabaidatzeko gonbita egin nahi diegu, haur, gazte, entrenatzaile, epaile, guraso zein kordinatzaileei, guztiek baitute zer esana eta guztion artean arraun eginez soilik lor ditzakegulako erroko aldaketak. Hasi gara, multikirol ligaxka urrats garrantzitsu bat da gure ustez, eta urratsez urrats, guztiontzako eta era berean osasuntsu eta dibertigarria izango den eskola kirol ereduarekin asmatu dezakegula sinesten dugu. Ibiliatz iristen omen da utopiara... Ekingo al diogu bideari?

Guztion ardura delako, zaindu, babestu eta maita dezagun eskola kirola!

■ **EKAP -Eskola Kirolaren Aldeko Plataforma-**

Esker mila eta eskaera bat

Urriaren 7an plazan antolatu genuen Kalefit saio solidariora gerturatu ziren guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu

gutun honetan, bai entrenamenduan izan zirenei eta baita beste moduren batera parte-hartu zutenei ere. Eskerririk asko herritarrei eta Arkupe elkarteari, emandako erantzun zoragarriak. Oriotarren solidaritatea agerian geratu zen egun hartan, eta horrela jarraitzea nahiko genuke.

Zoritzarrez, bildutako guztia ez da nahikoa, errefuxiatuen beharrak handiak dira eta. Negua gainean da eta jende asko kalean bizi da, oinutsik. Horregatik, haiengana eramateko arropa eta zapatak jasotzen jarraituko dugu. Azaroaren 3an eta 17an 17:00etatik 19:00etara plazan izango gara bilketa egiten.

Mota guztietako zapatak -takoidunak ez- eta neguko arropa jasotzeaz gain, dirua ere eskertuko dugu. Azaroaren 27an 10 furgoneta eta kamioi bat joango gara Serbiaraino; 15 egun egingo ditugu, guztira, kanpoan. Hori guztia antolatzeko, logistika martxan jartzeko, dirua behar dugu. Horregatik, plazan izango garen egunetan diru bilketa egiteaz gain, Laboral kutxan kontu korrontea ireki dugu, nahi duenak bertan sar dezan. Orioko bulegora joan eta Ez Itxi Begiak elkarteagatik galde-tuta nahikoa da. Bestela hau da zenbakia: ES4730350182111820033041

Bukatzeko esan janari eta higiene produktu batzuen bilketa ere antolatu dugula, arroza, esne hautsa, tomatea, konpresak eta pardelak. Bilketa hauek, herriko ikastetxeetan eta Spar dendan egingo dira, azaroan zehar.

Eskerrak berriz ere. ■ **Ez Itxi Begiak.**

■ **HILDAKOAK**

- Carmelo Lakunza Murgiondo, Orion, urriaren 19an. 74 urte.
- Miguel Puertas Cabezudo, Orion, urriaren 18an. 74 urte.
- Dolores Aldaz Idarreta, Orion, urriaren 17an. 92 urte.
- Juan Jose Iparragirre Iturzaeta, Orion, urriaren 16an. 62 urte.
- Maria Luisa Iturbide Jauregi, Orion, urriaren 8an. 90 urte.

■ **EZKONDUTAKOAK**

- Alaitz Gomez de Segura Arrastua eta David Hernandez Bello, Orion, urriaren 11n.
- Alain Montilla Bello eta Eneko Usandizaga Olazabal, Orion, urriaren 7an.
- Francisco Borja Leoz Zaldúa eta Lina Patricia Zapata Jaramillo, Orion, irailaren 30ean.
- Leire Zinkunegi Lopez de Gereño eta Josu Galdos Kazabon, Orion, irailaren 30ean.
- Estibaliz Frias Bravo eta Ibon Otazua Dominguez, Orion, irailaren 22an.

■ **JAIOTAKOAK**

- Lore Del Hoyo Aldasoro, Orion, urriaren 17an.
- Nahikari Crespo Garcia, Orion, urriaren 12an.
- Aner Gallego Solaberrieta, Orion, urriaren 7an.
- Naheen Subhani Shaheen, Orion, irailaren 23an.
- Mare Itxaso Barrenetxea, Orion, irailaren 12an.



Zubiko eskailerak LGBT kolorez margotu dituzte Xaltxerek. XALTXERAK



Diva harri-jasotzaile txapelketa jokatu zen Aian. I. ERRAZU



Martxeloren omenezko pintada agertu da gaztetxe ondoan. KARKARA

Beldurra eta fantasia

“Katalunian gertatzen ari denak beldurrezko filma dirudi. Guk, ordea, nahiago ditugu fantasiakoak.”

Kataluniara begira pasa dugu urria osoa. Hilaren bateko erreferendumeko indarkeriatik hasi, atxiloketetatik pasa eta 155. artikuluraino, gertatzen ari denak beldurrezko filma dirudi. Guk, ordea, nahiago ditugu fantasiakoak. Eta hemen eginak badira, hobe. Aian grabatutako Errementari pelikula bere bidea egiten ari da zinemaldietan: Sitgesen izan da duela gutxi, eta Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 38. Astea irekiko du urriaren 28an.

Errementariez gain, aizkolariak ere izan ditugu hil honetan; arraun surferako taula baten gainean enborra mozteko gai direnak, gainera. Halaxe egin zuen Iñigo Landa zarauztarrak erriean jokatu zen arraun surf lehiaketaren egunean. Patxi Oliden ere omendu zuen Euskal Herriko Surf Federazioak, 60. hamarkada amaieran surf oholak egiten aitzindari izateagatik. Gaur egun, jendeak erlikiak bailiran jasotzen ditu *Danbolinek* egindako Itxas Tresna zaharrak.

Bestelako itsas kontuak. Hegaluze ugari harrapatu omen dute arrantzaleek aurten. Kanpaina ona baino hobea izan dela entzun dugu, eta hori, beti da notizia pozgarria. Salto, moila bazterretik Aristerrazura. Gogor hasi da erromeria denboraldia, dosi bikoitza izango da datorren astean. Herri kirolak ere indartsu datoz. Diva harri-jasotzaile txapelketa egin berritan, Kintopeko idi probetarako prestatzen ari dira Aiako probalekua.

Herriak herri eta auzoak auzo, uda urrutiratzen doan arren ez dira festak amaitu. San Martin festak bertan ditugu, eta ederki ospatuko dituzte, urtero bezala, Ortzakan eta Urdañetan. Sanikolasak antolatzeke bilerak ere martxan dira dagoeneko.

Herriei bizia ematen dieten gauza bakarrak ez dira festak, ordea. Koloreek, pinturekedo marrazkiek ere asko alai ditzakete kaleak. Horretaz badakite zerbait Xaltxerek. Alaitasunez eta aldarriz margotu dituzte zubiko eskailerak LGTB banderaren koloreekin. Bestalde, Martxelo zenaren omenezko pintada bat ere agertu da Etxeluze Gaztetxearen ondoan. Xelebreena zera da, inork ez dakiela nor den egilea. Ederra marka!

KARKARIÑOAK

Ba al duzu irakurtzeko ohiturarik?



“Irakurtzen dudan guztia informatzeko izaten da”

Internetez irakurtzen dut ia beti. Kirol kronikak begiratzen ditut gehienbat. Tarteka egunkaria ere irakurtzen dut, tabernan nagoenean, esate baterako.

Liburuak, nobelak eta horrelakoak ez ditut irakurtzen. Ez daukat ohitura-rik, inoiz ez dut izan. Normalean, irakurtzen dudan guztia informatzeko izaten da. Katalunian gertatzen ari denaz jakiteko, adibidez; horrek gehiago mugitzen nau. Baina, bestela, plazerratik, inoiz ez naiz izan liburuak irakurtzekoa.

Prentsa irakurtzen dut, mugikorretik gehiena. Aldizkariak ere irakurtzen ditut batzuetan.

Joseba Arrondo



“Ikastolan eskatzen digutelako irakurtzen dut”

Ez dut irakurtzeko ohiturarik, batzuetan udan erortzen da liburuaren bat, baina normalean ikastolan eskatzen digutelako. Hiruhileko bakoitzean liburu bat euskaraz eta beste bat gazteleraz irakurri behar dugu.

Gelakide batzuei pereza ematen die irakurtzeak, aukeratu duten liburuak ez zaielako asko gustatu edo. Beste batzuk, berriz, gustura irakurtzen dute. Nik, liburu batzuk gusturago irakurtzen ditut beste batzuk baino. Maitasun istorioak, adibidez, gustatzen zaizkit. Azken irakurri dudana liburu bat Momo izan da, pixka bat arraroa iruditu zait.

Aiora Fervenza



“Zientzia fikziozko liburuak gustatzen zaizkit”

Normalean ez dut asko irakurtzen, tarteka liburuaren bat edo. Eskolan beti behartu izan gaituzte, hiruhileroko euskaraz liburu bat eta gazteleraz bestea.

Ohitura ez izan arren, gustatzen zait irakurtzea. Behin edo behin liburu on bat hartu eta gustura irakurri izan dut. Baina, askotan, pereza edo alperkeriatatik, ez naiz hasten irakurtzen.

Zientzia fikziozko liburuak gustatzen zaizkit, adibidez. Gauza arinak irakurtzea gustatzen zait normalean, ez astunak. Iaz gaztelerako klasean Leon de Aranoaren liburu bat irakurri behar izan genuen eta ezin izan nuen amaitu, oso astuna egin zitzaidan.

Aitor Azurmendi

Zarautz
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra

Harrespil
Hilerri Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

Herri baten bizimodua errezeta liburutan jasotzen da. Lagunarteko otorduak; etxe-ko jan ohiturak; baratza, ibaia eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... ikasteko lekuak dira denak. Mahaiaren bueltan gauza asko egin daitezke. Interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Goazen Orioko errezeta liburua idaztera.

“Euskalduna oinarrizkoa da, potajea nahi du”

Jaione Arrillaga
Tarta gazia



Osagaiak

Hostore freskoa, biribila.
Aza, buru txikia.
Porrua.
Tipula.
Azenarioa edo kalabaza.
Arrautza, hiru ale.
Esnea edo esnegaina, 200 ml.
Gatza.
Oliba olioia.
Intxaur muskatua, aukeran.

Nola egin

Hostorea tarta moldean jarri eta sardeskarekin zuloak egin, haz ez dadin. Laberako papelarekin tapatu eta garbantzuak jarri gainean. Labean sartu 180 gradura 20 minutu. Bitartean barazkiak garbitu eta moztu. Aza julianara moztu eta egosi 15 minutuz. Ura kendu eta mantendu. Beste barazkiak zati txikitik moztu, oliotan egin poliki-poliki, gatza gehituz. Ontzi batean 3 arrautza, esnea edo esnegaina, gatza eta intxaur muskatua bota. Gero barazkiak gehitu. Hostorea labetik atera, garbantzuak eta papera kendu. Prestatutakoa hostorean jarri eta labean sartu berriz 30 minutuz. Erraza eta barazkiak jateko beste modu bat!

KARKARA

Noiztik zabilta sukaldean?

Hamasei urte nituenean hasi nintzen sukaldean, ordutik ez naiz gelditu. Nire bi ahizpek administrazioa ikasi zuten eta ez nuen hori nahi, zerbait praktikoa nahi nuen. Lanbide heziketa hautatu eta sukaldaritzak ikasi nuen hiru urtez. Orioko kanpineko jatetxetik deitu ninduten asteburuetan lan egiteko eta bi urte egin nituen buru-belarri. Lan hark balio izan zidan konturatzeko sukaldaritzak ze ordutegi dituen. Ondoren dietetika ikasketak egin nituen bi urtez, lana utzi gabe. Gerora, sukaldaritzak bidaiatzeko aukera ere eman dit, ez da hain zaila lana aurkitzea sukaldean jakinez gero.

Zein izan dira zure eskolak?

Lehen lan urteek eta esperientziek asko markatzen zaituzte. Urte gogorrik izan ziren, lana latz egiten genuen. Ingalaterrara egindako bidaia mugarririk izan zen niretzat: leku pare batean aritu nintzen lanean eta asko ikusi eta ikasi nuen sen-

tsazioa dut. Irekiak dira ingelesak, aniztasun handikoak sukaldean ere, denetik jaten dute. Hemen ez gara gure urdaiazpiko eta piper beteetatik ateratzen, han ugariagoak dira osagaiak, jatorriak, teknikak.... Askok ikasten da. Horrez gain, sukalde barruko postuak asko errespetatzen ziren: sukaldaria, laguntzailea, garbitzailea... bakoitzak badu bere ardurua eta egitekoa. Euskal Herriko sukaldeetan denok denetik egitera ohituta gaude.

Hermanin eguneko zentro batean ari zara sukaldari. Zein da adineko jendeari otorduak prestatzen ari den langilearen buruhauste handiena?

Hasiera batean egoiliarrek gustura egotea zen helburua. Gaur egun aldatu egin da ikuspegia: medikua daukagu zentroan eta hark azaltzen die botikak hartuta bakarrik ez dela norbere burua zaintzen, elikadura ere zaindu behar dela. Beraz, garbi jaten dugu. Kantitateak ez dira oso handiak,



“Nabarmena da eskolako jangeletan zer gertatzen den. (...) Osagai berdinekin ez da berdin sukaldatzen berrehun edo sei mila lagunentzat, ezin da janaria berdin gozatu.”

umeen tankerako razioak dira. Adinean aurrera egin ahala dastamena galtzen da eta janaria mastikatzea kostatzen da. Askok burua ondo izan arren dena txikituta edo birrinduta eman behar zaie. Noski, aspertu edo nazkatu egiten dira beti antzekoa jaten. Horregatik, purea ez den beste zer eman pentsatzen lan eremu berria ireki zaigu sukaldarioi. Aukera bat da xerra aurrez txikituta ematea, baina biguna ez den guztia bola egiten zaie. Puding antzeko formatuak asko erabiltzen ditugu. Jai egunetan konpotak, kokotxak eta salda sartzen ditugu errutinatik ateratzeko. Orain gelatina begitatekin janariari dentsitatea ematen saiatzen ari gara, testuriztua deitzen dena aztertzen ari gara. Hurrengo urtean menuan izango dugu ia seguru.

Elikadura joera berriak ugariak dira gizartean: beganoak, makrobiotika... zuenera iritsi al da?

Ez. Euskalduna oinarritzkoa da, potajea nahi du. Beroa egon dadila eta errezjateko modukoa. Gainera, behin plater bat janda bete egiten dira. Tendentzia berrien artean soja esnea sartu da indartsuen, baina nobedade berriak nekez. Hori bai, saiatzen gara Hernani inguruko produktuak erabiltzen, dena ezin da baina ahal den neurrian.

Hiru urteko haurraren ama zara, sukaldeko ofizioa ondo ezagutzen duzu. Hitz egin dezagun eskoletako jangelez.

Nire haurra ez da jangelan gelditzen, baina nabarmena da zer gertatzen den. Ez da eskoletan bertan prestatzen janaria, ikastetxe askotan sukaldarikeri ere ez dago. Goizeko lehen orduan neurri handitan prestatu den janaria termotan ekartzen da jangelara. Osagai berdinekin ez da berdin sukaldatzen berrehun edo sei mila lagunentzat, ezin da janaria berdin gozatu.

Denborarekin eskolan bertan sukaldatzea lortu behar genuke, ederra litzateke. Mugimendua indartzen ari omen da pixkanaka, baina gurasoek bultzatu behar omen dugu aldaketa. Garbi dut eskolako jangelan sukaldatzeak zerbitzua hobetuko duela. Gerora bertako produktuak eta ekologikoak prestatzea izango da helburu. Baina lehen pausoa sukaldatzea da eta azpiegitura mantendu duten ikastetxeetan errazagoa izango da.

Zertan da Luxarbe baserriko baratza? Garai batean dezente aritua zara.

Baserrian bizi guztian ezagutu dugu baratza: ia hogeita hamar urterekin konturatzen zara ez dakizula etxeko baratzkiak ez den beste ezer jaten. Luxarbeko baratzak ez du lehenengo martxa baina indartsu dago oraindik. Ama ez da lehen adina joaten, osabak egiten du lan gehien. Lan asko du, eta lan jarraia. Betiko eztabaida da, behin baratza antolatuta ahalik eta etekin gehien atera nahi zaio.

Ni ez naiz lehen adina joaten, tarteka, asteburuetan gehiena. Sagar biltzen izan naiz azkena. Gustura joango nintzateke gehiagotan. Bertan bizi ginenean errazagoa zen, orain haurra ere badut eta lanak pilatzen zaizkigu. Hori bai, gustura izango nuke baratza Andatzen, etxetik bertan.

eduzitegia
ANTILLA
juleta

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

Carmen eta Txomin
 ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

HAIZE BERRI
 taberna-juletxua-kafetegia

Plater konbinatuak,
 bokafak,
 horiburgesak,
 raziok,
 eguneko menua...

*ostiralean
 pintxo
 potea!*

eta etxera eramateko
 zerbitzua!

943 831 623

Orioko Ibaidegian, Erbera 1
 Gaztetan
 2016



**ASADOR
 XIXARIO**

Tamio Guteran Kalea, 2
 Tel. 943 80019 - ORIO

Portu
 ERRETEGIA

Santo Erreka Auzoa, 10
 943 89 24 34
 20809 AIA-ORIO

*luzatzen laguntza oinetan
 juletxo erabak ezarri nahi*

ITZALA

*kartelak jokatzen
 auzoan*

tel. 943 83 12 59

Gabon
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitaratekoak

943 83 06 09

KOLON TXIKI
 ogitarategia
 juletxua



Herriko Enparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

ARISTERRAZU
 juletxea

Andatza auzoa - AIA
 Tel. 943 83 45 21

ROSANA
 -ARGAZKI ESTUDIOA-
 lotorosanaarruti@gmail.com
 tel: 943 83 58 45




JULETXEA
Gaberna

Antillako
 Hondartza 5
 20810-Orio
 Tel.:943 89 04 16



KAFETEGI - OKINDEGI - GOZOTEGIA **GELATTO**



943 578 176
 Herriko enparantza

lzozki naturalak - Opilak

arkaitz taberna
 orio

- Ogitaratekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
 Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

PIZZERIA



KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
 TELEFONOA: 943 24 89 46

Free party is not a crime



Zigor Esoain

Trailaren azken ostiralez, azken 5 urteetan bezala, aurten ere, hondartzatik Itxaspera bidean dagoen zabalgunean *ravea* antolatu zuten herriko gazte batzuk. Festa, alegia, denok uler dezagun. Adin ezberdinetako musika elektronikoaren zaleen urteroko bilgunea. Denak herritarrak. Bari-ko San Nikolas bera bezain oriotarrak. Aurreko 4 urteetan ez dute inolako arazorik izan beren erromeria ospatzeko. Pentsa, aurreko urtean ertzaintza agertu omen zen festaren erdian, eta ez omen zuen trabarik jarri... Aurten, berriz, ertzainik ez da agertu, baina udaltzainak agertu dira eta musika ekipoak eta festa aurrera ateratzeko egindako montajea kentzeko agindua eman zuten. Hori gutxi ez eta espedientea irekiko zietela mehatxu egin zieten gazteei, gainera. *Sekula hola-koik holako parajetan!?*

Pena eta desilusio handiarekin, amorru eta ezin ulertuen gainera, desmontatzea erabaki zuten. Azken finean, beren nahia lagunartean ondo pasatzea izaten da horrelakoak antolatzeko garaian, eta ez dute inorekin inongo istorio txarrik eduki nahi. Horregatik, hain justu, erabaki zuten inori enbarazurik egiten ez dion leku batera joatea. Eta batenbat zaborraz kexaka hasi aurretik, esan behar dut, gazte hauen filosofia leku hura zegoena baino garbiagoa uztea dela... Beraz, burrunbak eta zaborrak ez die balio argudiotzat festa hau egitearen aurka daudenei. Baimena eskatzen hasiko bagina aurpegira barre egingo ligukete, ondo dakigu ezetza jasoko genukeela, horretxegatik baimenik ez eskatzearena...

Besterik gabe, motzean, gazte talde honen partez, amorrua eta haserrea adierazi nahi nuke lerro hauen bidez. Astegun burusoil batean, herriko erdigunean, txaranga bat baimendua dagoen herri honetan, inguruan etxerik ez dagoen leku batean gazte erromeria galaraztea ulertezina da. Argudiorik gabeko kexa batek 100 herritarrek baino pisu handiagoa edukitzea ulertu ezin den bezalaxe. Udaltzainek kexaren bat jaso ote zuten aipatu zuten; Itxaspe baserrira deitu eta han ezer ez zekitela baieztatu eta gero, ez dakit nik sinesgarritasun handirik ote duen kexa horren bertsioak... Bakoitzak bere konklusioak atera ditzala.



Onintza Aiestaran

Dolua

Heriotza zerbait naturala bada ere, oro har eta salbuespenak salbuespen, inor ez dago senide, lagun edota gertuko bat betiko galtzeko prest. Ni ez behintzat. Aldi berean, ordea, ba al da bizitzan hori baino gauza ziurragorik? Nork daki zientziaren eta teknologia-aren laguntzaz betiko bizitza noizbait posible izango ote den, baina gaur-gaurkoz heriotza ezin da saihestu.

Hori horrela izanik ere, heriotzaz hitz egitea TABUA da oraindik; gaiaz ez hitz eginda mina desagertu egingo balitz bezala. Niri bizitzak eta denborak kontrakoa erakutsi didate, hau da, heriotzaz eta doluaz hitz egitea ezinbestekoa dela.

Heriotzaren gaia gizarteratzerakoan rol garrantzitsua bete dezakete hedabideek, bereziki publikoek. Ildo horretan, 'Ur handitan' telebista saioak doluari buruz egindako atalak bere aletxoak jarri du zeregin horretan. Karkarak, Orioko eta Aiako herri aldizkari den neurrian, ere badu bere egiteko gaia mahai gainera aterata.

Kontuak kontu, nire ustez, doluaren aurka ez dago errezeta orokorrik. Bakoitzak bere modura bizi du eta pertsona bati lagungarri izan zaionak ez dio beste bati balioko. Dena den, prozesuari buruzko informazioa eskura izatea eta entzungo zaituen konfiantzazko pertsona bat alboan izatea ez dago inoiz soberan. Gero, norberak erabaki dezala.

azkue

karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

GARMENDIA
HIZIEN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASERURAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
informacion@garmendiagestion.com

SU KIA

TABERNA - JATE-TOKIA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPAILI

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- E-GUNEKO MENJIA
- E-GUNEKATIAK
- OGIA

TEL.: 943 834 438
ARMARONDEY 16, 1. BARRUA

Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600
688 714 869

Santi Barranco
Orioko ordezkaria
e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

Endala Enparantza, 1
20810 Orrio (Gipuzkoa)

Azkue

Tf: 943 130 438

Azkue

urbide

iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaita Kalea, 4
20800 Zarauz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskaInet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

KORTABERRI

arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com
665 70 33 47

Alustiza Autobusak

Alustiza Bidaiek S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93, 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01; 656 78 29 99

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN

Pelotari 5, Orrio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

ANOBA TXIBI S.L.

KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

IGLESIAS SARRILAGILEAK

24 OREKO ZERBITZUA


Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascarrajerros@yahoo.es
ZOBIO ORIO

- ATAK INKOTZEN DITUGU
- SARRAILA - ISLINDRO ALDAKETAK
- ATAK IXTEKO MALDURIEN ALDAKETA
- KOMUNITATERENTZAKO ZERBITZUA



Euskararen aldeko iraultza publikoa

Ikasturte berezia da aurtengoa Orioko Zaragueta Herri Eskolan. Irailean berrogei urte bete dira, eskola ikasleak euskara hutsean hezten hasi zenetik. 70. hamarkadan hezkuntza publikoa euskalduntzeko borroka egin zutenekin bildu gara, iraultza haren nondik norakoak hobeto ezagutzeko.



TESTUA: I. GAITON

ARGAZKIAK: KARKARA / ZARAGUETA

Euskara sustatzeko, bi esparru izan behar dira kontuan: kalitatea eta kantitatea. Juantxo Arteaga ari da hizketan. 70eko hamarkadaren hasieran, hezkuntza munduan euskara txertatzeko setarekin zebilen talde bateko kide zen lasartearra. *Lehenago ikastoletan aritua nintzen euskara sustatzeko proiektuetan, baina momentu batean motz geratzea zela iruditu zitzaidan. Hizkuntzaren zabalkundea behar bezala eman zedin, eskola publikoen esparruan ere lan egin behar zela ikusi genuen.*

Arteaga eta bere kideak, tartean Ruiz Balerdi artista, *bazter nahastailak* ziren. Garai haietan, eskola publikoak nahikoa leku aldrebesak ziren euskararen aldeko lanerako; batik

bat, egoera politikoagatik eta kanpotik etorritako irakasleengatik. *Orion topatu genuen Gipuzkoa guztiko jenderik onena. Miguel Nacenta, batez ere, zutabe oso garrantzitsua izan zen hezkuntza publikoa euskalduntzeko borrokan.*

Nacenta Huescatik Oriora etorria zen, bikotea eta bi alabarekin. Arteagaren iritiz, Miguel *eredua* izan zen irakasle askorentzat. *Aragoitik etorri berria izanda, eta euskaraz jakin ez arren, borroka asko egin zuen, tenple handiarekin. Askotan eman zuen aurpegia administrazioan.*

Izaera iraultzailea

Miguel Nacenta eta Mari Paz Gimeno 1971ean etorri ziren Oriora bizitzera, urtegiengatik Huescan 42 ikastetxe itxi os-



“Euskararen zabalkundea behar bezala eman zedin, eskola publikoetan ere lan egin behar zela ikusi genuen.”

J. Arteaga

tean. Normalean, hango irakasleak Katalunia aldera joaten ziren lanera. *Momentu hartan Euskal Herrian gertatzen ari zen langile iraultza ezagutu nahi genuen gertutik. Burgosko prozesua ere garai horietan ari zen jazotzen. Herri bizi batean bizitzeko ilusioa geneukan, diote biek.*

Miguel 1972an hasi zen Orion klaseak ematen. Urte hartan inauguratu zen orain Ikastola den eraikina ere. Eskolako zuzendaritzako kideek hiru helburu nagusiko proiektua egituratu zuten eraikuntza berrirako: ikastetxea modu asanblearioan kudeatzea, pedagogia berritzea eta eskolak euskaraz ematen hastea.

Euskararen aldeko jarrera nondik zetorkien galdetuta, Miguelek argi du erantzuna: *Izaera iraultzailea genuen. Orion herriak hori nahi zuen, oriotarrek eskatzen zuten euskara eskolan. Herrigintzarako funtsezko tresna zela ohartu ginen berehala.* Orduan irakasle batzuk ez zuten ulertzen Nacentaren grina. *Garai hartan ñabardura asko zeuden, zaila da berezitasun denak orain azaltzea. Perspektiba, pentsamendu ezberdin eta sentimendu asko nahasten ziren. Hezkuntza, gainera, beti izan da gai sentsiblea.* 70eko hamarkadan hezkuntza publikoa euskalduntzearekin batera ikasi zuten irakasle askok euskaraz. *Niri asko kostatu zitzaidan, baina esperientzia ikaragarri ona izan zen. Aberasgarria benetan.*

Zaragueta, eskola aitzindaria

Oriokoarekin batera, Hernani, Andoain, Lasarte eta Deba izan ziren eskola publikoetan euskara txertatu zuten lehen herriak. *Bilbon ere izan ginen, Gobernuko delegatu batekin bilduta, Arteaga, Eduardo Chillida eta hirurok, Gipuzkoako beste eskolen ordezkari, azpimarratu du Miguelek.*

1974an, eskola publikoetan euskara irakasteko baimena ematen zuen programa bat onartu zieten. Baimenarekin batera, baliabideak eta irakasleak ere jarri zizkieten eskura. 1976an onartu zen *Decreto de Bilingüismo* delakoa. Urte hartan sartu zen Zaraguetan irakasle Maite Garcia oriotarra, Ramiro argazkilariaren alaba, Nekane Sagastume amezketa-rrarekin batera. Ikasketak bukatu eta berehala suertatu zitzaion lanerako aukera. *Ikasleei euskarazko klaseak emateko arduraz gain, irakasleak euskalduntzeko lana ere gure gain hartu genuen.* Irakasle batzuek ez zuten argi ikusten euskara txertatzearena, *beren lanpostuak arriskuan jartzen baitzuten horrek.* Administrazioarekin ere egin behar izan zuten borroka gogotik. Gerora, Gipuzkoako herrietan hitzaldiak ematen jardun ziren, beren esperientzia kontatuz, euskara txertatzeko zailtasunak zituztenei laguntzen.

Hasieran, bigarren etapan sartu zuten euskara ikasgai gisa. Gero, 1977an sortu zen D eredua, haurra osotasunean euskaraz heztea ahalbidetzen zuena.

Guraso elkartearen indarra

Nacentaren hitzetan, gurasoen aldetik indar handia jaso zuten. Maria Luisa San Sebastian orduko guraso elkarteko kideak, gogoan du Donostiara umeekin batera egin zuten irteera bat. *Delegazioko eskailetan eserita egon ginen. Gauzak*



40. urteurrena ospatzeko irailean egindako ekitaldian, garai desberdinetako gurasoak, irakasleak,... bildu ziren. ZARAGUETA

iraultzeko gogo geneukan, bai. Zuzendaritzak eskura zituen gurasoak, behar zuten guztirako. Batik bat emakumeek osatzen genuen elkarte. Orduan asko etxekoandreak ginenez, denbora libre geneukan eskolako kontuetan parte hartzeko. Euskara txertatzeko gogo bizia izanik, gure inplikazioa handia izan zen.

Eskola publiko euskalduna

Maiteri, gerora ere, min eman izan dio jende batek Zaraguetari *eskola nazionala* deitzeak. *Markatuta egon da herrian. Batzuk termino zahar horretan tratatuta geratu ziren, eta asko ernegatzen ninduen horrek. Eskola nazionala? Eskola publiko euskalduna da Zaragueta 70eko hamarkadatik.*

1977-1978 ikasturtean, euskara hutsean hezitako lehen belaunaldikoa da Agurtzane Aduriz oriotarra. *Umetan ez ginen konturatzen guk klaseak euskaraz jaso ahal izateko irakasleak eta gurasoak egiten ari ziren lanaz. 2010ean Agurtzane alaba matrikulatu zuen eskolan. Bazekien bertan hezkuntza euskalduna bermatua zuela. Ikastetxea lan ikaragarria ari da egiten, batik bat etorkinekin. Klean ume pakistandarrak elkarri euskaraz egiten ikusten dituzu. Zaraguetaren lanaren fruitua da.*

Jakes Goikoetxea oriotarra ere bertako gurasoa da. Umetan ikastolan ikasi zuen berak, eta aitortzen du garai batean bazituztela eskolaren izaerarekiko errezeloak. Bere iritziz, gaur egun, hori gainditu da. *Herriko jendeak, beharbada, eza gutza eza izan du Zaraguetarekiko.*

Herriko eskola publikoak geroz eta etorkin gehiago jasotzeak, euskararen osasuna urratu dezakeen galdetu diogu

“Eskolan euskara txertatzeko gogo bizia genuenez, guraso elkarteko kideok asko inplikatu ginen.”

M. L. San Sebastian

“Garai hartako egoera sozio-politiko kontuan hartuz, Zaraguetaren eboluzioa ikaragarria izan zen.”

J. Zabaleta



Haur Hezkuntzako ikasleak Zaragueta eskolan. KARKARA

Jakesi. *Eragina izan dezake, bai, baina ez dut uste giro euskalduna errotik baldintzatzen dutenik. Gure semea Zaragueta matrikulatzean, bagenekien beste ikastetxe batzuetan baino etorkin gehiago izango zituela ikasgelan, baina hori ona dela uste dut. Hezkuntza prozesua jatorri ezberdineko jendearekin elkarbanatzea, umearen garapenerako esperientzia aberasgarria da. Txikitatik landutako bizikidetzak horrek lagunduko dio etorkizunean kanpotik datozenekiko aurreiritziak gainditzeko.*

Euskararen presentzia nagusi

Eskolako eguneroko martxa barrutik ezagututa, Jakesek ikastetxeko giroa guztiz euskalduna dela baieztatzen du. *Ama hizkuntza gaztelera duten gurasoak badaude, eta haiek erdaraz egiteko joera dute, normala den bezala; baina euskara da nagusi Zaragueta. Hala ere, bere iritziz, gizartean joera handia dago hizkuntzaren karga eskolaren gain soilik uzteko. Ikasleek eskolatik kanpo jasotzen dutenak ere garrantzia izugarria du. Gizarteko eragile guztien ardura da euskara eskolako hizkuntza izateaz gain, bizitzakoa ere bihurtzen saiatzea. Hizkuntzak elementu transbertsala izan behar du.*

Egindako lanari aitortza

Jabier Zabaleta Orioko Udaleko Euskara teknikaria da. Bere bi seme-alabek Zaragueta ikasi zuten, eta ondo ezagutzen du ikastetxea. *Eskolak lan izugarria egin zuen urte gutxian, eta bere izaera guztiz irauli zuen. 70eko hamarkadan Eskola nazionala zena, ikastetxe publiko euskalduna bihurtu zuten, borroka handia eginda. Garaiko egoera soziopolitikoak kon-*

tuan hartuz, eboluzioa ikaragarria izan zen.

Jabierren iritziz, Zaragueta euskararen normalizazioaren alde egindako lanari garrantzi gutxi eman zaio Orioko imaginario kolektiboan. *Iruditzen zait herrian ez dela baloratu behar beste eskolak urteetan egindako lana.*

Gaur egun, Udala UEMAren eta herriko bi ikastetxeekin ari da elkarlanean. Ikas materiala sortu dute, ikasleak euskararen arnagune bateko kide izateak duen garrantziaz jabetu daitezela. *Eskolak, euskararen erabilera bermatzeaz gain, euskal hiztun kontzienteak sortu behar ditu. Horretan ari gara. Bestalde, azken urteetan garrantzia handia eman diogu euskaldunen kopurua handitzeari; baina uste dut hizkuntzaren kalitatean ere jarri behar dugula arreta gero eta gehiago.*

Urteurrena ospatzeko, programa oparoa

Zaragueta programa zabala antolatuta du ikasturte guztirako, eskolak euskaraz ematen hasi zirenetik 40 urte bete direla ospatzeko. Hilero egingo dute ekimenen bat. Oraindik programako xehetasun batzuk ixteko badaude ere, antolatzaileek aurreratu dituzte ekintza batzuen nondik norakoak: mahai-inguruak –euskara eta hezkuntza ardatz hartuta–, Txantxariak ikuskizuna, gosari tertulia, altxorraren bila ume jolasa Txurumuskirekin, Herri natur taldearekin irteera herrian zehar, bazkaria eta amaierako ekitaldia...

Ekitaldien antolakuntza batzordeak adierazi duenez, *oriotar guztiak jardueretan parte hartzera gonbidatu nahi ditugu. Ekimen guztiak irekiak dira, eta beso zabalik hartuko zaituztegu. Ikasturte berezia da aurtengoa guretzat, eta ilusio berezia egiten digu herritarrekin elkarbanatzeak.*

Udazken haizeak



Aitor Arregi

Udazkenak melankonia kolpe izugarria eman dit, laguna. Ilargia, hego haizea, *edadia*, auskalo zein izan den eragile. Seme zaharrenari iritsi zaio eskola kirolean hasteko garaia eta neuk bizi

izandakoak etorri zaizkit gogora. Aiako eskolan taldea ateratzeko nahiko lagun ez eta Zaraguetako lagunekin atera ohi genuen taldea: Ionpa, Fernando, Joxe Mari, Iosu, Iker, Inigo...

Larunbat zoragarriak niretzat, Zarauzko hondartza edo Zaraguetako frontoia, Maracaná edo Artaleku bihurtzen ziren niretzat, Orioko eta Zarauzko ikastolak, La Salle, Antoniano, oe, oe, oe!!

Ekirekin, ordea, ilusioa baino kezka handiagoa dut

“Seme zaharrenari iritsi zaio Eskola Kirolean hasteko garaia eta neuk bitzakoak etorri zaizkit gogora.”

barrean. Ez da umearekiko kezka, badakit ongi eta gaizki pasako duela, irabazi eta galtzen, lehiatzen ikasiz. Nigan ditut kezkak, gai izango ote naiz haurrak jokatzen ikusteko, lasai, patxadaz, inor epaitu edo kritikatu gabe?

Dena errazagoa zen, burua altxatu, Iker bakarrik zela ikusi eta baloia hari pasatzean, gooooo!



Eneko Balerdi

Udazkenak urtero dakar haizea hegotik, edo errekatik diote beste zenbaitek, eta hark berarekin lehorra, gorria eta ximela. Zuri ere eragin dizu orduan?

Aldartea gora eta behera—emozionalki zoro—garai hauetako haizeari zoro haize ere deitzen zaio eta bada andra haize deitzen dionik ere. Zenbaitek emakumeei egozten baitizkiete emozioak edota emozio-keriak, baina hara zu, gizon, emozioen dantzan pausoak txukun emateko kezkatzen.

Iñaki Kasaresi guraso.eus atarai idatzitako artikulatik hartutakoa da honakoa: *gizakiok pasa gara ‘animalia arrazional’ izatetik, ‘emozioak dituen anima-*

“Udazkenak urtero dakar haizea hegotik, eta hark berarekin lehorra, gorria eta ximela.”

lia arrazionala’ izatera eta, hemendik, azken urteotan, ‘pentsatzen ere duen izaki emozionala’ izatera.

Zu, agian, futboleko zebilen animalia izango zinen eta gaur egun, aldiz, pensatzen ere duen aita emozionala. Bada, lasai, lagun, eta Iñakik bere idatzian bezala nik ere bera gomendioa: har ezazu astia, andrearekin batera, semearekin egoteko, eta ikusiz ikasiko du animalia-kerietatik emozio-keriatarara igarotzen.

Sorkuntza eta identitatea



Egoitz Dorronsoro

Sorkuntza, baita intelektuala ere -kulturala zein zientifiko-merkantzia bihurtu da. Ondorioz, jabe bat dute eta etekin ekonomikoak lortzea dute helburu.

er bait berria eta originala idazten saiatzen gara askotan. Gai berri bat hartuz edo betiko gaiari ikuspegi berritzaile bat emanaz. Iturri ezberdinetara joz inspirazio bila. Batzuetan sinpleago izan behar dugula deritzot. Gauza zoragarriak idatziak daude jadanik.

Arazoa da, sorkuntza, baita intelektuala ere -kulturala zein zientifiko-merkantzia bihurtu dela. Ondorioz, jabe bat dute eta etekin ekonomikoak lortzea dute helburu. Beraz, mugak daude abestiak, nobelak, artea zein testu teorikoak erabiltzeko. Pentsa, unibertsitateko klaseetan testu liburu baten zati bat erabili nahi dutenean, ikasleei fotokopiak ateratzeko kontu handiz ibili behar dutela esaten diete, egi-leen eskubideak direla eta.

Nire aburuz, sorkuntza-lanek ez dute jaberik, gutxiago pentsamolde edo ideiek. Jakintzak unibertsala behar du izan. Beti jatorria edo asmatzailea zein den aipatuz. Horregatik, SGAE bezalako erakundeak arbuiatzen ditut eta Creative Commons bezalakoak goraipatu. Azken hori, legislazio eta teknologia berriak erabiliz, sormenezko lanak partekatzeko oztopo legalak murriztea helburu duen irabazi asmorik gabeko erakundeak baita. Beren hurrengo esaldiak garbi erakusten du zein den euren filosofia *kopiatu, banatu eta jen-*

de aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada.

Horregatik oraingoan, generoez, botere harremanez eta beste hainbat gauzez hausnartzeko zoragarria den Terre Thaemlitz - Creative Commons lizentziak erabiltzen ditu- testu bat luzatu nahi dizuet. Botere harremanen ondorioz erabiltzen den biolentzia sinboliko, politiko zein estrukturalaz hausnartzeko balio duena, beti ere kontuan izanik biolentzia horiek ez direla modu isolatuan suertatzen, maila ekonomikoen, identitate sexualen, jatorri etnikoen eta beste hainbat faktoreren elkartrukea dira. Besterik gabe, to testua, eta astindu burmuinak:

Zein da nire identitate sexuala, gizonetzotik emakumezko-rako transexual batekin erlazio sexualak dituen gizonetzotik jantzitako drag queen transgenero bezala, suposatzen ez dakidala bera trans dela? Eta nik onartzen badut bera trans dela? Zer gertatzen da ni emakumez jantzen banaiz? Eta bera gay bada? Eta lesbiana bada? Eta bera queer bezala identifikatzen bada? Eta bisexuala bada? Zer kontsideratzen da 'Sexua' eta zer pasatzen da atzetik ematen badit? Eta ez badu egiten? Eta pertsona horrekin erlazio luze eta monogamo bat badu?



Irailare 21ean, lehen kargu publikoen atxiloketen ondoren, elkarretaratzea izan zen Orioko plazan. KARKARA

Elkartasun keinuak Kataluniarentzat

2017ko urria historiarako geratuko da Katalunian gertatutako guztiagatik: kargu publikoen atxiloketak, erreferendum eguneko poliziaren indarkeria, ondorengo egunetako tirabira politikoak... Demokraziaren aldeko mobilizazio ugari izan dira azken hilabetean Katalunian, eta baita Euskal Herrian ere. Katalunian gertatutako bidegabekeriak salatzeke eta katalanekiko elkartasuna adierazteko ekitaldi ugari egin dira herri askotan. Kazerolada zaratatsuak egin ziren, tartean; webean dago ikusgai bideoa. Argazki bilduma honetan Orion egindakoak jaso ditugu.



Udaleko langileek ere elkartasun argazkia atera zuten. UDAL LANGILEAK



Ikastolako langileak Kataluniarekin bat. ORIOKO HERRI IKASTOLA



Cuixart eta Sanchezen atxiloketak salatzeo elkarretaratzea. KARKARA



Erreferendumaren egunean festa katalana izan zen plazan. J. ZABALETA



Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

OREKA FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgiak
Artrrosia
Zefaleak

Masaje terapeutikoak,
hentsoak, akupuntura
enkueto terapia,
osteopatia

943 13 35 37

Aritzaia kalea, 11 beheak



ORIA hertz klinika

Amantziaga kalea, 63 beheak
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45

Orio Hertz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jartzen du martxan.

Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurrerakoi erabakia orduan sar daitezkeen arazoak.

ITZIAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03

KAIJOA

Arropa
Oinetakoak
Osagarriak

Arantzale kalea, 1
T 943 134 885
ORDO (Gipuzkoa)

Zgorbe kalea, 16
15. Erdetako kalean kokatuta
T 943 021 004
ZARAUZ (Gipuzkoa)

Erbasa kalea, 10
T 943 943 000
ZUMAIA (Gipuzkoa)

www.kaioa.es



ELEKTRIZITATEA
Ander Exposito

943 831 774
600 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com

ile apaindegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - beheak
Tel. 943 13 47 29
ORIO

URAITZ

liburindotgia
jantzi osagarriak

Euzkadi 3 - Ipar 943 83 18 97



EKILORE GARBIKETAK

626417841
ekilore@outlook.es

Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA



2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 · 20810 Orio (Gipuzkoa)

T 943 835 980 | www.2gurpil.com | bigurpil@hotmail.com



ETXEKO BEREZITASUNAK
ARRAIN ZOPA
PARRILA

BODEGON SARASUA
EKRETTIGIX

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05



PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txakorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO





Arraun paladak euskal aztarnei segika

Juan Angel Garmendia

Estropalari beteteranoa

Juan Angel Garmendia Ternuan izan da aurtengo udan. 450 kilometroko itsas zeharkaldi batean parte hartu du, euskal arrantzaleek baleak ehizatzen zituzten kostaldeetan barrena.



J. A. GARMENDIA

I. GAITON

Ternuako biztanleek urtero antolatzen duten euskal astearen baitan egin dute zeharkaldia, Juan Angel eta tripulazioko kideek. Esperientzia zoragarria izan da *Xarpasentzat*, eta buruan darabil berriro itzultzeko ideia.

Zer dela eta Ternuara?

Beteranoen arraun ligan parte hartzen dut Zarauzko txaluparekin. Iparraldeko elkarteekin harreman handia dugu, eta Ibaialde da horietako bat. Bi espedizio eginak zituzten haiek aurretik hara. Hirugarrenerako jendea behar zutela komentatu zigutenean, ez nuen zalantzarik izan.

Urtero antolatzen duten euskal festaren harira joan zineten.

Ipar Euskal Herriko jendea gonbidatzen dute, pilotan jokatzerara, euskal jakiak prestatzerara, dantza egin eta kantatzerara... Arraun zeharkaldia, ospakizun horien harira egin dugu. Azken egunean kointziditu genuen denok. Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, St Pierren Euskal Etxea eraikitzeko lehen harria ere jarri genuen.

Hara joanda, euskal arrastoa nabarmena da beraz.

Bai, euskal diaspora oso zabala da han. Saint Pierre & Miquelonon 6.000 biztanletik 3.500ek hemengo abizenak dituzte.

450 kilometro egin dituzue txaluparekin, 10 etapatan.

Ternuako Placentia herritik, Saint Pierre & Miquelon irletara joan ginen arraunean.

Hogeita bat lagunek osatu dugu tripulazioa: Lapurdiko zazpi, lau getxoxtar, hiru zarauztar eta ni. Euskal jatorriko Montreal eta Quebecoko jendea ere juntatu zitzaigun.

“Saint Pierre & Miquelonon 6.000 biztanletik 3.500ek euskal abizenak dituzte.”



J. A. GARMENDIA

Ba al zekiten arraunean?

Ez, baina hori ere bazen proiektuaren beste xede bat: hangoei, pixkanaka arraunean erakustea. 2003an euskaldunek egindako espedizioan, bertan utzi zuten trainerua, kanadarak arraunean has zitezen. Aurtengoa ere erosi egin digute. Ari dira pixkanaka.

Nola antolatzen zenituzten txandak?

Taldea hiru tripulaziotan banatu genuen. Ordu erdiko lau saioen ostean, txalupa erdia atera egiten zen zeharkaldian laguntzen zigun itsasontzira, eta kanpokoak sartu. Batez beste, bakoitzak lau ordutik gora egin ditugu arraunean egunero.

Ipurdia ederki gogortuko zitzazuen.

Horrek sufritzen du gehien, baina fisikoki ez zara asko nekatzen. Psikologikoki gogorragoa da.

Kirol estropadetarako edo horrelako erronka baterako, zein da alderik handiena prestaketan?

Arraunketa. Palada laburragoa ematen da, gehiegi etzan gabe. Biomekanikoki desgaste gutxiago duen teknika bilatzen da, gorputzak ordu luzez arraun egin ahal izateko.

Geldialdiak egiten al zenituzten etapetan?

Ikustea merezi zuen bahia, labar edo herrixkaren bat zegoe-la abisatzen zigutenean, paisaiatz gozatzeraz geratzen ginen tarteka.

Itsas baldintza gogorrik izan al zenuten?

Haizeak zaildu zizkigun gauzak. Deskantsatzeko edo alda-

ketak egiteko itsasoan geratzen ginenean, ibilbidean atzera bultzatzen gintuzten haize ufadek. Etapa bat oso gogorra egin zitzazun. Talde onena jarri eta gogor egin behar izan genuen arraunean, kostaldeari itsatsita helmugara iristeko.

Uda garaian joan arren, fresko egingo zuen.

Hamalau eta hamabost gradu bitarteko tenperatura izan genuen. Bertakoentzako, beroa. Beso motzetan ibiltzen ziren. Neguan hogeitzero azpitik ere izaten dute.

Zein dute diru iturri nagusia?

Arrantza. Egun batean beren sotoak ikustera eraman gintuzten, eta harritura geratu nintzen arrantzako materialarekin, zaharra iruditu zitzaidan. Nik umetan kofradian ikusitako irudiak etorri zitzazkidan burura.

Bizitako zer esperientzia edo oroitzapenekin geratzen zara?

Lekuaren handitasunak harritu ninduen. Espazioa dago bazter guztietan. Bahia izugarriak topatzen dituzu, hutsak, edo lau etxerekin. Jende oso gutxi bizi da. Urruti daude leku guztietatik.

Zeharkaldiaren harira, Astigarragako sagardotegiren batekin ere egin duzue lotura.

Duela 450 urte, orain sagardotegia den baserriko sagardoa eraman zuten Ternuara arrantzaleek. Ikaragarria da. Duela gutxi, sagardotegikoek bidaiara egin zuten hara, hango bazterrak ezagutzera. Sagardotegira gonbidatu gintuzten, jan edan pixkarekin istorioak trukatzera.

Udazken arratsalde euritsu goxo bat

Kritika Anari

Kontzertua, urriaren 22an eman zuen kontzertua Anarik, Etxeluze gaztetxean.



Etxeluze bete egin zen Anarik eman zuen kontzertuan. KARKARA

Igandea, arratsaldeko sei terdiak. Euritan pasa du egun osoa eta askok pentsa lezakete ez dagoela etxean gertzea baino plan hobirik. Abenturazale batzuk, ordea, botak eta txamarra jantzi eta, atertu egin duela aprobetxatuz, Etxeluzera bidean jarri gara.

Badirudi uste baino gehiago garelako abenturazaleak, gaztete kanpoan jende mordoa dago atean ireki zain. Azkenean, 180 inguru izan omen gara abenturazaleak. Itxaronaldi labur baten ondoren igo dira oholtzara musikariak. Poza ematen du gaztetxea horrela ikustek; *Anarik jende asko mugitzen du esaldia bat baino gehiagoren ahotan*. Kontzertuko lehen akordeak entzun besterik ez dago hori ulertzeko.

Aspaldian ez nuen Anari zuzenean ikusi, eta izugarri gozatu dut bere garaian asko maitatutako abestiak berriz ere entzuten. Giro goxo-goxoa sortu da; konplizitatea taldearen eta ikusleen artean. Taldeak gozatu egin du, eta gozamen hori publikoari transmititu dio. Irribarra ez da ezabatu Anariren aurpegitik.

Gustura iritsi naiz etxera eta idazten hasi naiz: *igandea, arratsaldeko sei terdiak...*

MIRIAM GARCIA

Katu Moria
ΟΙΦΙΛΟΓΕΙΤΟ ΚΙΤΙΟ

ESTROPALARI, 10
20510 ORZO

TEL. 942 11 66 99

LARRIANDIAK
008 89 11 20

www.katumoria.com

BODEGAS

Gailur

BIHOTZ BARRIO A. 41840
Tel./Fax 943 34 91 36
www.bodegagailur.com

Anabar Erricen

ZUDUGARAI

Galariako Triakolina

TEL. 943 83 03 88
Fax 943 83 34 32
bukalzudugarai@breaknet.net
www.bukalzudugarai.com

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK

ROSA

GARBIÑE ARRILLAGA
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43

10% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAI

Garbiñe Arregi

Moda de osagarriak

Herrera plaza, 5
635 716 265

pasaportuari goizez zabaldu!

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa

argine

55eko dekarretas familia egarier txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orrio
943 134 889 argine/jantziak

Zaragueta Herri Eskola Orrio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkontza.net



Oriotarrak eta eskoziarrak, aurtengo abuztuan, Aginagako sagardotegian. MARIBEL BRUÑO

Orain 50 urte Loretxu tabernan

Oroimenaren kutxa

Orain 50 urte Maureenek Manolo ezagutu zuen Orioko taberna batean. Maureen mostradoretik hartutako orri bat ulertu nahian zebilen. Manolok laguntza eskaini zion. Hitz batzuk egin ondoren, Maureenek esan zion Manolori: 'zu bihar emaztearekin etorri, ni gurasoekin etorriko naiz'.

Manolok esan zion Serafina andreari: 'Bihar Eskoziako familia bat ezagutuko dugu'. Serafina ikaratu egin zen: 'Baina nola, nik ez dakit ingelesez eta!'. Rose eta John gurasoek zera esan zioten Maureen: 'Guk ez dakigu haien hizkuntza!'.

Duela 50 urte izan zen, Maureenek Manolo Orioko taberna batean ezagutu zuenean.

Biharamunean, tabernan elkartuta, Oriokoak alde batean jarri ziren eta kanpinoko eskoziarrak bestean. Erdian, hizketan, Maureen eta Manolo bakarrik. Handik gutxira, Rose eta Serafina berriketan ari ziren, eta John eta Manolo, eta neska gazteak ere bai, hitz eta pitz, solasean.

Orain 50 urte, bai, Maureenek Manolo Orioko taberna batean ezagutu zuen.

Aurtengo udan, 2017koan, oriotarren eta eskoziarren argazkia ez da osoa izan. Tamalez, gutako batzuk joan egin ziren, ez daude gure artean. Baina gauza bat segurua da: gure familien arteko harremanak irauin egingo du ondorengo belaunaldietan ere.

Aurreko hitzak kantu batekoak dira. Portugesez hitz egiten den Indiako Goa lurraldean jaio eta Eskoziara ezkondu zen Leslie Fernandesena, Maureen senarrarenak. Aurtengo abuztu hasieran Aginagako sagardotegian ospatu zuten festarako idatzi zituen, ingelesez. Leslie ingelesez kantatutakoa euskal bertsoekin osatu zuen Maribel Bruñok. Festan bi familia elkartu ziren: bata Oriokoa, bestea Eskoziakoa.

Urteurren bat ospatzera etorri ziren eskoziarrak Oriora.

Urteurren gehienetan zerbait epikoa ekartzen da gogora: garraipen bat, bataila bat... Aurtengo udakoan ez. Bi familien arteko adiskidetasuna sortu zeneko 50. urtebetetzea ospatu zuten. 1967ko udako egun batean Manolo Moran, Valladoliden jaio eta Oriora ezkonduko familia madrildarreko gizona, Loretxun zegoen. Tabernan bi neska sartu ziren. Ez ziren moldatzen hizkuntzarekin. Manolo egona zen hiru hilabetez lanean Irlandan, eta bazekien ingeles pixka bat. Laguntza eskaini zien: *¿Can I help you?* Keinu hark ekarri zuen bihar-munean hirutik zortzira pasatzea topaketa. Aurtengoan ia 40 lagun elkartu dira.

Bi familia horien harremanaren historiak hiru belaunaldi hartzen ditu, eta kapitulu asko. Eskoziarrak urte askotan etorri dira oporretan Oriora. Oriotarrak ere bai, Eskoziara. Ingelesa ikastera ere izanak dira Orioko lauzpabost gaztetxo Eskozian. Elkarrentzat lehengusuak bezala dira, *gure lehengusu eskoziarrak* oriotarrentzat.

Lehenengo belaunaldikoetatik Serafina oriotarra bakarrik geratzen da. Manolo hil zen. Loretxu itxi zuten. Eta orain 50 urte Euskal Herriko arrantzale herri batera etorri zen Fisher familia eskoziarreko gurasoak ere bai. Maureen neska gazte haren koinatu Jim orain hiru urte hil zenean, Oriora etorri ziren haren errautsak zabaltzera, itsasadarrean.

Bi familietako oraingo gazteek errazagoa dute orain elkarren berri izatea. *Vascoces* izendatu duten whaspa dute horretarako. Baina hori posible izan da orain 50 urte, 1967an, frankismo beteko gizarte itxi hartan, sei urte lehenago zabalduko kanpinera etorritako kanpotar bati oriotar batek *¿Can I help you?* esan ziolako, zubi-lana egin zuelako, bizirik segitzen duen zubia.

Zenbat horrelako istorio sortu ote da Orioko kanpinaren 56 urteko historian?

José Joaquín Arrillaga, aiar bat Kaliforniako gobernadore

M. Uriak belarritik tira zigun orain dela urte pare bat, aiar ezagunak asko ez zirela, eta zirenak ezezagun zitzaizkigula esanez. Horietako bat da José Joaquín Arrillaga, XVIII. mende bukaeran Kaliforniako gobernadore izan zena. Hango euskaldunen berri emateko idatzi zuen Asun Garikanok *Kaliforniakoak* liburua, guk handik jaso dugu informazioa, eta labur-labur eginda ekarri. Irakurtzekoak dira haren egunerokoak, indioekin eta errusiarrekin izandako gorabeherak.

TESTUA: R. UZKUDUN, KALIFORNIAKOAK LIBURUTIK


Manterola baserrian jaio zela diote dokumentuek, 1750. urtean, José Joaquín Arrillaga Enbil. Hil, berriz, Kalifornian hil zen, Nuestra Señora de la Soledad misioan, San Frantziskotik hegoaldera. Hantxe dago argazkian ikusten den oroitarria: *Bere soldaduengandik, kideengandik eta lagunengandik Papa moduan ezaguna. Kaliforniako gobernadore izan zen, bitan, Espainiako Erresumaren agindupean. Bere heriotzean, 1814an, berak hala eskatuta, frantziskotarren abituarekin lurperatua izan zen misioetako elizan.*

Aiako apaizen erregistroan jasotakoaren arabera senide ugariko familia bateko hirugarrena zen José Joaquín. Manterola burdinolan, *Ironworks*en – halaxe zetorren ingelesezko itzulpenean – jaio eta hazi zen. Garai hartan, bost ola zeuden Aian.

Ameriketara joandakoan, bere zerbitzu-orriaren arabera, azkar igo zen mailaz: 1777an boluntario sartu zen Sonorako presidio konpainian, 1778an alferrez egin zuten, eta 1780tik aurrera teniente gisa zerbitzatu zuen Texaseko San Sabas eta La Bahia konpainietan. 1783an Loretoko presidioko kapitain eta Californietako gobernadore orde izendatu zuten. 1792an Jose Antonio Romeu gobernadorea hil zenean, Arrillaga Californietako behin-behineko gobernadore bilakatu zen. Chapman historialariaren ustez, kargu horretan egon zen tarte laburrean, 1792tik 1794ra, oso gizon saiatua eta trebea zela erakutsi zuen, eta orduan irabazitako ospeagatik eta bere izaera onagatik izendatu zuten aurrerago gobernadore.

Lehenengo agintaldia (1792-1794)

Agintaldi labur horretako lanetatik bi dira aipagarri. Lehenengo, 1793an suteak kontrolatzeko eman zuen



José Joaquín Arrillagaren hilobia Nuestra Señora de la Soledad misioan.

“Manterola burdinolan, *Iroworks*en -halaxe zetorren ingelesezko itzulpenean- jaio eta hazi zen.”

“Arrillagak zuzenean hartu zuen parte eta, espedizio haietan ohitura zen bezala, eguneroko batean jasota utzi zituen bere ibilerak.”

bandoa –Kaliforniako suteak prebenitzeko lehen ahalegina–, eta bigarrena defentsak indartzea. Ingalaterrak eta Espainiak Mundu Berriaren alderdi hartaz jabetzeko lehian jarraitzen zuten, eta errusiarrak ere kezka iturri ziren. Atzerriarren hurbiltasunaren mehatxuaren aurrean, San Frantziskon gotorleku bat altxatzeari ekin zion Arrillagak. Eraikinak Castillo de San Joaquín zuen izena, eta Golden Gate zubi ezagunaren ertzetako batean kokatzen zen. San Joaquin gazteluak ez zuen luzaroan iraun. Hala ere, merezi du gogoratzea Arrillagak altxarazitako gaztelu hark eta Arantzazu fragatak ekarritako kanoiek defendatu zutela San Frantziskoko badiaren sarrera hainbat urtez.

Esplorazioen egunerokoa

Behin behineko agintaldia bukatuta, teniente koronel zela, berak sinatutako dokumentuen artean bada besteengandik oso bestelakoa den bat, Berkeleyko Bancroft liburutegian gordetzen den eskuizkribu hau: *Diario que manifiesta los Reconocimientos q(u)e a verificado de Or(de)n Superior... en las Fronteras a la Gentilidad de la Antigua California y margenes del Colorado.*

XVIII. mendearen bukaeran, Baja Californiatik ipar-ekialderantz zabaltzen ziren eremuak, Colorado ibai artekoak, eta Kaliforniako golko artekoak, nahikoa ezezagunak ziren artean. La Frontera izena ematen zitzaienten, eta azpiratu gabeko lurak ziren, Kaliforniako Yuma komunitatearen bizileku. Mendearen azken urteetan, hainbat espedizio abiatu ziren hura esploratzera. Haietako batean, Arrillagak zuzenean hartu zuen parte eta, espedizio haietan ohitura zen bezala,



Arrillagaren aurreneko espedizioetako mapa.

eguneroko batean jasota utzi zituen bere ibilerak.

John W. Robinson historialariaren hitzetan esanda, *hartutako lurraldeagatik eta behaketen zehaztasunagatik, espedizio horiek ez zuten parekorik izan Baja Californiaren iparraldeko historiaren hasierako urteetan.*

Eguneroko horren zati bat Garikanoren liburuan jasoa dago, Arrillagak lehenengo pertsonan bizi eta idatzi zituen bezala, indioekin izandako gorabeherak eta joan-etorriak tarteko. Esanguratsua da bukaeran Arrillagake giten duen aitortpena, Garikanok bere horretan, euskarara itzuli gabe, jaso duena.

Bigarren agintaldia (1804-1814)

1804an Baja California eta Alta California bi administrazio unitate bilakatu ziren, lehenengoak Loreto izan zuen hiriburu, eta penintsula guztia hartu zuen. Felipe Goikoetxea izan zen gobernadore. Bigarrenak, berriz, San Diego baino behe-raxeago hasi eta handik gorako lur guztiak hartuz, Monterrey izan zuen hiriburu, eta José Joaquín Arrillaga gobernadore. Bi agintariak Mexikoko erregeordearen esanetara egon ziren. Euskal abizena zuen hark ere: José Iturrigarai.

Kargu berrian lurraldearen defentsak izan ziren berriro ere Arrillagaren buruhausterik handiena. Laurehun bat lagunek osatzen zuten Kaliforniaren indar militar guztia, zurien populazioa eskasegia zen haien artetik gizon gehiago errekrutatzeke, indioekin kontatzerik ez zegoen soldadutarako, eta ontzi anglo-amerikarrak gero eta maizago hurbiltzen ziren Kaliforniako uretara perla, arrain nahiz larru bila. Mehatxuaren aurrean, Arrillagak kontrabandoaren kontra neurriak estutzea erabaki zuen 1806an. Aurrerantzean,



San Frantziskon, *Golden Gate*-a dagoen ertzean altxa zuten gotorlekua.

“1810 aldera, urteak eta gaitzak zirela eta, Arrillagak sorterrira bueltatzeko baimena eskatu zion erregeari. Beharbada, beretarren artean hil nahi zuelako, ez baitzen inoiz ezkondu.”

“Arrillagaren hileta ez zen nolana hikoia izan, bertan izandako hainbat lagunek kontatzen dutenez”

“Garikanok handik eta hemendik jaso dituen iritzien arabera hitz onak besterik ez daude Arrillagaren inguruan.”



Nuestra Señora de Loreto misioa, Behe Kalifornian, 1700 aldean.

zorrotz zainduko zuen itsasertza eta, atzerritar ontzi bat begiz jo orduko, presidiorik hurbilenera abisua pasa, eta ezingo zitzaion jangairik eskaini. Errusiarrekin, ordea, bestelako gorabeherak izan zituen, diplomazia eta amodio kontuak tarteko. Liburuan pasarte oso bat dator errusiarrekin izandako afera kontatzen duena, eguneroko baten zatia barne.

Arrillagaren azken urteak

1806an, Kaliforniaren barrualdeak *terra incognita* izaten jarraitzen zuen neurri handi batean. Eta hura esploratzea izan zen Arrillagaren hurrengo urteetako lanik aipagarriena. Ordurako adinduta, oraingoan ez zen zaldi gainera igo eta bera abiatuko, 1796an Colorado inguruak esploratzera abiatu zenean bezala.

1810 aldera, urteak eta gaitzak zirela eta, Arrillagak sorterrira erretiratzeko baimena eskatu zion erregeari. Behar bada, beretarren artean hil nahi zuelako, ez baitzen inoiz ezkondu, eta batere senitartekorik ez baitzeukan Kalifornian. Baina lurralde hartan eskaintzen ari zen zerbitzua ezinbestekoa zela erantzun zion gorteak.

1814ko uztailean, inspekzio ibilaldi batean zihoala, ondoezak jo zuen. Halabeharrik nahi izan zuen Soledad izatea misiorik hurbilena. Hara eramane zuten, eta han hil zen 1814ko uztailearen 24an, hesteetako odoljario baten ondorioz.

Arrillagaren hileta ez zen nolana hikoia izan, bertan izandako hainbat lagunek kontatu zuten: *Sekulakoa izan zen, ehunka espainiar zintzo, lau misiotako misiolariak, indio asko eta Monterreyko presidioko guztiak han izan ziren.*

Hain handia omen zen neofito eta inguruko estimazioa, bere hilobian monumentu bat altxa zutela eta, urte askoan,

joan zirela loreak jartzera Santu Guztien egunean.

Bere ondasunen inguruan, testamentuan idatzita laga zuen bere arimaren alde ehun meza emateko, zerbitzariak 25 eta 100 dolar arteko kopurua jasotzeko, besteak beste. Anai-arreba batzuk ere aipatzen zituen. Bere arreba gazteena izango zena, Maria Josefa, izendatu zuen oinordeko. Ez daki gu ondasunek Euskal Herrirainoko bidea egin zuten. Diru asko ere ez zen. Hogeita hamazazpi urteko zerbitzaldiaren ondoren, hiru mila dolarrera ez zen iristen gobernadorearen fortuna.


Garikanok handik eta hemendik jaso dituen iritzien arabera hitz onak besterik ez daude Arrillagaren inguruan:

- Gizon garaia zen, oso zuria, ilehoria, begi urdina... Oso gizon adeitsua zen, jende guztiak maite zuena.

- *Era vizcaíno, reseco en su manera* baina onbera eta eskuza-bala troparekin.

- Izen emate egunetik heriotza arte, ez nagusiek, ez mende-koek, ez fraideek, ez zuten haren portaeran akatsik aurkitu.

Ezagutu zutenetik George Vancouverrek bakarrik ematen du hala-holako iritzia Arrillagaz. Beste iritzi guztien arabera, badirudi gizon maitatua izan zela Arrillaga. Liburuan aipatutako datuetatik, euskaldun zuzen, fededun, saiatu eta austeroaren prototipoa bailitzan erretzen da José Joaquín Arrillaga. Zakar samarra, baina zintzoa. Hala ere, Garikanok berak kapituluaren bukaeran dioen bezala *datu asko falta dira. Haren lumatik ateratako dokumentu ofizialek eta ezagutu zutenen lekukotasunek ezer ez dute esaten haren bizitza pribatuaz. Inork ez du esplikatzen zergatik aurkitu zituzten haren kutxak, hil zenean, zetazko paineluz eta galtzerdiz beteta. Fikzio idazleentzat geratzen da hutsune hori betetzea.*



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL/F - 943 572 083
FAX - 943 571 190
lasenjo@hotmail.es

INES ASENJO
ABESLARI, 1
20810 ORJO



ARIDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORJO

TENIS IKASTAROA 2017-2018
URRIAK 2tik Ekainak 22 arte

Maita eta adin guztietarako klaseak

ASTEARTEA	OSTEGUNA
17:00-18:00 LH1-LH2-LH3	LH1-LH2-LH3
18:00-19:00 LH4-LH5-LH6	LH4-LH5-LH6
20:00-21:00 HELDUAK	DBH

Inskripzioak eta informazio gehiago: www.bspport.com

KARELA kiroldegia 943 89 44 28

Xapa zapatarra

eman beste aukera bat zure zapata eta oragarriei



Herriko plaza. Orjo

libe
dietetika
elikadura aholkularitza



eusko gudariak 35 :: ORJO
[sarrera Arrantzale kaleak]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

PERTSIANAK

A K O M A Z



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

MENDIZABAL
AROSZTEGIA

Nerriko arnairak eta igarlarak

943 831 175 Altzerrri bidea
645 708 491 Bete-Aldi etxea
mendib@arozgi.net 20810 Aia-Orjo

ZINKU

Igeltseritza orokorra
Etsako aurrekoena mola guztiak
fabrikeak, batzu opak, igeltser...

Ander Zinkunegui
667 740 279

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 83 59 00

ZAUDEN LEKUAN ZAUELA



K
karkara.eus

BOGA BOGA



Orjo - Hondartza Bidea
943 89 21 31

Eguneko menua
eta plater konbinatuak



kutixi
kafetegia
GOSARI GORDAK

Artzaga 8, 20810 Orjo
TF: 943 13 15 17

K-U-K-U-A-R-R-I
ELEKTRIZTATEA



Tel: 943 100 181
Mobiela 640 261 360
Zigordia, 32 - Beheia C
20000 Zarautza

kukuuarri@kukuuarri.com



Joxe Mari Unanue

Herriko kaleak

Herriatik buelta bat ematea aski da herri-tarron zabarkeriaz eta axolagabekeriak ohartzeko. Ez dago arreta handirik jarri beharrik geure kaleetan zenbat zabor dagoen ikusi ahal izateko, eta hori, egunero kale-garbitzaileek kentzen duten zabor guztia ikusten ez dugun arren. Plastikozko poltsak, zigarro kondarrak, txikleak, pipa-azalak, txakurren gorotzak eta beste hainbat zakarrek in topatzen gara etxetik ateratzen garen bakoitzean.

Kontua da, gai honi ez diogula behar besteko garrantzia ematen, eta geure burua engainatzen jarraitzen dugula, dagoeneko lurrean dagoen zaborra bertan utziz, eta oraindik eta gehiago botaz. Baina ez gara ohartzen, azken finean, geure herria, honen inguruak, eta noski, itsasoa zikintzen ari garela. Konponbidea, denok daki-gu zein den, eta oso erraza da gainera, bakoitzak bere aldetik jarriz gero, jakina.

Nor engainatu nahi dugu? Norentzat dira herriko kaleak? Horren besteko lana al da zaborra zaborrontzi batera botatzea?

Plastikozko poltsak, zigarro kondarrak, txikleak, pipa azalak, txakurren gorotzak...

Gure gela berriak

LH2ko ikasleak

LH6. MAILAKO IKASLEAK

LH2ko ikasleek iaz gela arruntean egin zuten lan. Udako obren ondoren, espazio berrian hasi dute ikasturtea. Hauxe da gela berriei buruz duten iritzia.

Zer aldaketa ikusten duzue zuek LHlean egon zinetenetik hona?

Horma gutxi daude eta atea kristalezkoak dira, horrela dena ikus dezakegu. Mahaiak ere ezberdinak dira; tolestu egiten dira eta gurpilak dituzte. Horrela behar ez ditugunean jaso egiten ditugu. **Zer da gela hauetatik gehien gustatzen zaizuen?**

Tailerrak egitea. Diskoteka daukagu eta hor dantza egiten dugu. Askok gustatzen zaigu. Plastika tailerra ere badago eta lana egiten hasi aurretik liburuak ikusten ditugu.

Nola ikasi eta lan egiten duzue?

Tailerretan egiten dugu lan: matematika, adibidez, jokuekin lantzen dugu. Natur txokoa eta hizkuntza txokoa ere baditugu. Tailerretan LH1 eta LH2 nahastuta ibiltzen gara. Nahi dugun tailerretan sartu gaitezke, baina tokia badago bakarrik. Denbora bat pasa ondoren txokoak aldatu egiten dituzte;

urte osoan ez ditugu gauza berdinak egingo ezta? Proiektuak ere egiten ditugu; guk gaiak proposatzen ditugu eta gero gehiengoak nahi duena aukeratzen dugu. Orain itsasoa lantzen ari gara eta etxetik informazioa ekartzen dugu eta pantailan ikusten dugu.

Zer nahiago duzue joan den urteko lekua edo aurtengoa?

Oraingoa! Politagoa da! Orain dena irekita dago eta lehen pareta asko zeuden, dena itxita zegoen. Handiagoa da! Eguneko momentu batzutan nahi dugun tokitan ibili gaitezke, gainera!

Kontatuko nolako den ikastola egun bat?

Bederatzietan sartu eta jolasten egoten gara ordu erdiz. Gero borobilean esertzen gara eta irakasleak egin behar ditugun gauzak esplikatzeko dizkigu. Jolasgarai ondoren proiektua, gaztelania edo ingelesa izaten ditugu. Arratsaldean etxetik ekarritako informazioa ateratzen dugu. Txokoak, tailerrak eta soinketa ere izaten ditugu. Ondo pasatzen dugu ikastolan!

Berriro gerta ez dadin



Herritarren foroa eta udal ordezkariak. KARKARA

Herritarren foroak eta udal ordezkariak osatutako batzordeak ondoko testua landu du, memoriaren egunaren harira:

Azken urteotan Orion hainbat herritar hamarkada hauetako gure historia kolektiboaren gaineko azterketa kritikoa egiten ari gara elkarrekin. Bi taldetan lan egin dugu: batean, udal talde politikoen ordezkariak; bestean, beren burua bakarrik ordezkatzeko duten herritarrak, ideologia askotakoak.

Iragan hurbilari eman diogun begiratu horretan bidegabekeria asko izan dira, ideia eta helburu politikoen izenean gizakiok elkarri eginak. Azaroaren 10eko Memoriaren Eguna gogoan dugula, lehenik gure aitortza erakutsi nahi diegu bidegabekeria hauen guztien eragina sufritu duten pertsona, fa-

milia eta ingurukoei. Bi taldeotako ki-deok adierazpen bat egin nahi diogu elkarrekin herriari, aurrera begirako asmo eta helburu batekin: etorkizunean berriro horrelakorik ez gertatzea.

Orion ere, aspaldiko urteotan, era askotako ekintza eta jarrera bortitz eta bidegabeak gertatu dira: hilketak, bahiketak, inkomunikaziopean atxilotutakoek jasandako torturak, enpresariei estortsioak, herritarren ondasunari erasoak, hainbat herritarrek eta alderdi ezberdinetako politikariek eta beren senide batzuek presio onartezinak jaso dituzte, mehatxuak alderdi baten edo bestean lerrotzeko eraginekin, dispartzioa pairatzen duten herritarrak daukagu egun oraindik... Zerrenda ez dago itxita eta osatzen segitu beharko dugu, ezinbestean aipatu gabe geratu baitira ego-

era mingarri asko. Garbi dagoena da hemen sufrimendu handia izan dela eta argi daukagu horrelakoak berriro ez gertatzeko bermerik onena zein den: gutako bakoitzak bere egitea guztion mina.

Hori dena gertatu da gure artean. Eta guk gaur hemen, elkarrekin, adierazi nahi dugu horiek guztiak oinarritzko giza eskubideen urraketa larriak izan direla. Giza duintasunaren kontrako eraso bidegabeak. Hori ez da ona gizartearentzat eta herritarrontzat, eta ez dugu nahi berriro gertatzea.

Oinarritzko ideia horietan bat gatoz. Horrek batzen gaitu Memoriaren Eguna elkarrekin burutzera azaroaren 10ean arratsaldeko 19:00etan Herriko Plazan, eta horixe adierazi nahi izan diogu herriari.

Azaroak 10, memoriaren eguna

Deialdia:

Orioko Bizikidetza Batzordeko kideok, udaleko alderdiko ordezkariak biltzen duen Batzordeko kideok, gonbidatu egin nahi zaituztegu oriotar guztiak, azaroaren 10eko Memoriaren Eguna dela eta egingo dugun elkarretaratzerara. Egun horretan indarkeriaren eta terrorismoaren biktimak gogoratuko ditugu Herriko Plazan, 19:00etan. Hau da azaroaren 10ean irakurriko dugun mozioa:

Mila esker etortzeagatik. Gaur hemen, azaroak 10, Memoriaren Egunean, Orioko plazan elkartu gara udal ordezkariak eta herritarrak, indarkeriaren eta terrorismoaren biktimak gogoratzeko. Izandako biktima guztiak aintzat hartzen ditugu, gatazka honek jazarpena bizi izan duten herritarrak direlako eta gertatu zenak ez zuelako inoiz gertatu behar. Biktima guztiak merezi dute egia, justizia eta aitortza. Berek bizi izandako injustizia salatu nahi dugu eta, aldi berean, errepika ez dadin, gogoratu. Kontziente gara herritarren bizikidetzan urtetan izandako biolentziak eta terrorismoak eragindako kaltea oso handia dela eta samin ugari eragin dituela. Herritarren artean urruntasuna, bazterkeria, ezinikusia, beldurra, isiltasuna eta bestelako sufri-menduak eragin ditu. Jakin badakigu zauri sakon asko dagoela

oraindik orbaindu gabe eta, ziurrenik, denbora eta lanketa handia beharko duela guztiak ondu arte.

Orioko Udalak bere alea jarri nahi du bide horretan, jakinda ez dela erraza izango. Zentzu horretan, Udalak urteak daramatza indarkeriak eragindako ondorioen inguruan lan egiten. Pasa den legealdian jarri zen martxan gaur egun lanean jarraitzen duen lantaldea. Hastapenetan bagaude ere, gure konpromiso irmoa adierazi nahi dugu hasi berri den prozesu honetan batera aritzeko. Askok dago oraindik lantzeko. Inork ez du esan erraza izango zenik. Guk, ordea, argi dugu merezi duela horren aldeko apustua egitea eta horretan jarraitzeko asmoa agertzen dugu.

Baina bakarrik ezin dugu. Zentzu horretan, herriaren prestutasuna ezinbestekoa da prozesu hau aurrera eraman ahal izateko. Dagoeneko hainbat herrikidek lehenengo urratsak eman dituzte eta berak ere hizketarako eta elkar entzuteko esparruak jorratzen ari dira. Eta gaurkoan ere hainbat herritar hurbildu zarete zuen presentziarekin babesa ematera.

Aurrerantzean pausuak ematen jarraitu beharko dugu, bakoitzak bere esparrutik, eta guk, udal ordezkariok, lanean jarraitzeko asmoa agerian uzten dugu.

Orioko EAJko, Orioko EH Bilduko eta Orain Plataformako alkate eta zinegotziak

Politika

Datorren urteko zergak eta tasak aho batez onartu ditu Orioko Udalak



Urriaren 10ean egin zuten ezohiko udalbatzarra Orioko udaletxean, eta besteak beste, 2018ko udal ordenantza fiskalen eta eranskinen aldaketak onartu zituzten. Salbuespen batzuk tarteko, tasa eta zerga gehienei KPlaren zenbatekoa aplikatzea ontzat eman zuten Udalbatzak gehiengo osoarekin.

Kontuan izan dute Gipuzkoako Foru Aldundiak katastroaren balioak egokitu zituela, eta, horregatik, industria inguruko

ondasun higiezinaren gaineko zerga mantendu egingo dute. Dena den, gainerako ondasun higiezinari KPlaren igoera aplikatuko zaiela adostu zuten. Berrikuntza bezala, etxebizitza hutsek %50eko gainkarga izango dute, hamabi salbuespenekin. Etxebizitzak hutsik dauden ala ez zehazteko, erroldak izango dituzte kontuan. Ordenantza hau martxan jartzeko, Zarauzko Udalekoa hartu dute eredu bezala. Bestalde, trakzio mekanikoko ibil-

gailuen gaineko zergak ere KPlaren arabera igoera izango du, kamioiek izan ezik.

Udal Musika Eskolaren kasuan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak eta udalbatzarrak onartutakoak izango dira ezarriko dituzten tasak. Horrez gain, 2018tik aurrera hondakinen kudeaketa mankomunitatearen esku geratzen denez, Urola Kostako Udal Elkarteak ekitaldi ekonomiko bakoitzean onartzen dituen zergak eta tasak aplikatuko dituzte. Tasa gehienak igoko badituzte ere, badaude salbuespenak. Salatxo aretoarena, Katea udal eraikinean kokatutako gelena eta udalbatzar aretoaren erabilera dira izoztu dituzten tasetako batzuk.

Orioko jarduera ekonomikoen gaineko tasa ere bere horretan utziko dute.

Udal kanpinaren, kiroldegia eta kirol pisten erabilerearen kasuan, aldiz, batzorde informatzaileek alde zuzenetik onartutako tasak ezarriko dituzte. Arraunetxeko instalazioak erabiltzeko tarifak -hiru tarifa dira- mantendu egingo dituzte, lehenengoa izan ezik; %2,5eko igoera izango du.

Tasak eta zergak behin-behinean onartuta, herritarrek egin ditzakete alegazioak.

OSPAKIZUNA



Urrezko ezteiak

Maria Rosario Esnal eta Emilio Lopez Orion ezkondu ziren 1967ko urriaren 7an. 50 urte beranduago elkarrekin eta pozik jarraitzen dute.

Duela hiru aste familian ospatu genituen urrezko ezteiak. Sorpresa bat eman nahi diegu oraingoan, Zarautzen bizi arren, hilerok heldzen baitzaie KARKARA etxera. Zorionak bikote!



Ingurumena Kide berrien bila dabil Orioko kontsumo taldea

Iñaki Zalduaren erreleboa hartu dute aurten Xabik eta Sarak, Orioko kontsumo taldearen hornitzaile gisa. Nekazaritza eredu berari jarraitzen diote: bertakoa, jasangarria eta garaian garaikoa. Etiketa eta zigiluetatik kanpo, ekoizle eta herritarren artean sortzen den zuzeneko harremanean oinarritzen da kontsumo taldea. Egitura horizontala, kooperazioan oinarritutako harremanak, elikadura burujabetza eta nekazarien lan baldintza duinak ditu ardatz.

Elikadura eta nekazaritza erdigunean jartzen ditu Kiribil Berdea kontsumo taldeak. 20 kide inguru ditu momentu honetan eta taldea handitu nahian dabilta Xabi eta Sara. Bi saski tamaina eskaintzen dituzte, txikia 25 eurotan eta handia 45 eurotan. Garaian garaiko produktuak aurkituko dituzte kontsumitzaileek saskietan, modu organikoan ekoiztiak. Astearteetan banatzen dituzte saskiak herriko plazan, 18:00etatik 19:00etara. Informazio gehiago jaso edo taldean izena eman nahi duenak 639 161 911 telefonora deitu dezake.

Kirola

Zuzendaritza berria osatzeko deialdia egin du Talai Mendi elkarteak

2013an hartu zuen oraingo zuzendaritzak Talai Mendi elkartearen ardura eta, lau urteko lanaren ostean, zuzendaritza berria osatzeko deialdia egin dute. Hiru, bost edo zazpi kideko zuzendaritza proposamenak azaroaren 17ra arte jasoko dituzte eta hirlaren 20an bazkide guztiekin egingo duten batzordean bozkatuko dituzte. Zuzendaritza batzorde berrirako proposamenak egin nahi dituzten bazkideek talaimendi@outlook.com helbidera bidali beharko dituzte.

Kultura

Itzulera poema liburua argitaratu du Martin Bidaurrek

Haurtzarotik gaztarora egindako bidaia poetiko modura aurkezten da Martin Bidaurren Itzulera liburua: *Okzitaniatik Euskal Herrira, hemendik Parisera, eta handik itzulera*. Urriaren 10ean aurkeztu zuen Donostian Susa argitaletxearekin kaleratu duen poema liburua.

Martin Bidaur -Tolosa, Okzitania, 1996- Itu Banda literatur kolektiboko kide da. Aurrez Lekore aldizkarian bere poemak argitaratu baditu ere, *Itzulera* da bere lehen liburua. Esperientzia intimo baten kontaketa egin du Bidaurrek bertan.

Bost atal ditu poema-liburuak. Haurtzaroko oroitzapenekin hasten da, *Hautsitako souvenir bat* atalean eta nerabezaroaz, *herritik, etxetik, ikastetxetik eta norberaren azaletik ihes egiteko desira adoleszenteaz*, hitz egiten du *Itxaronaldia* izeneko bigarren atalean. *Paris* izena du hirugarrenak, idazleak hirian pasa zuen denboraldiagatik eta Paristik Euskal Herrirako itzuleraz aritzen da *Uhartek* laugarren atalean. Ihes egiteari utzi eta *gauzak beste modu batera ikusteko beharra* gailentzen hasten da *Hutsuneak oinordetzan* bosgarren eta azken atalean.



Kultura

Galizian izan dira babeslekukoak

Irailaren 18tik 26ra Galiziar bidaia egin zuten herriko jubilatuek, Zaharren Babeslekuak antolatuta. 9 egun eta 8 gau egin dituzte bidaian, eta Galiziaz gain, Oviedo eta Leon ere ikusi dituzte.

Irailaren 18an Oriotik Oviedora joan ziren, han katedralen hondartza ikusi ostean, Lugora joan ziren hurrengo egunean. Galizian, O Grove, Santiago de Compostela, Cambados, A Coruña, Viana Do Castelo, Braga eta Pontevedra ikusi zituzten. Sil ibaian kruzeroa ere egin zuten jubilatuek. Azken gaua, irailaren 25ekoa, Leon hirian pasa zuten, Oriora itzuli aurretik.

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

- Gela bat edo biko pisu bat alokatu nahi dut. Aian eta inguruan. Tf: 665076624 -Aziza-
- Bi lagun ostatu bila. Pisu bat alokatu nahi dugu. Tf: 632420818
- Logela alokagai Orion. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30metroko terraza du. Tf: 652551550
- Orioko familia euskalduna alokairu bila herrian bertan. Gutxienez bi logela. Tf: 635201600
- 3 logelatako eta garaje-dun Babes Ofizialeko etxea alokatzen dut. An-datza auzoan. Tfnoa: 660893220

Lan eskaintza

- Emakume baten bila gabiltza, etxeko lanak egin, eta haurrak zaintzeko. Goiz eta arratsaldeko lana izango litzateke, haurrak eskolara eraman, eta eskolatik jaso ahal izateko. Disponibilitatea eskertuko da. Harremanetarako zenbakia: 606675048
- Neska euskalduna behar dugu otsailetik aurrera ume bat zaintzeko eta etxeko garbiketa egiteko. Interesatuak deitu 690152796 telefonora.

Lan eskaera

- Lan bila nabil: garbiketari eta helduen zaintzan. Esperientzia eta kualifikazioa daukat eta Orion bizi naiz. Tf: 671908242 -Felicita-
- Lan bila dabilen neska bat naiz. Helduen zaintzan eta garbiketari esperientzia daukat eta paperekin ditut. Tf: 663117579
- Emakumea lan bila. Esperientzia du pertsona helduak zaintzen, garbiketari eta besta hainbat lanetan. Paperak eguneratuta eta gomendioak ditut. Tf: 674123293
- 34 urteko neska euskaldun eta arduratsua naiz, arratsaldeko haurrak zaintzen, etxeko lanak egin edo eta partikularrak emateko prest, (astelehenetik, ostiralera). Tf: 659321326
- Emakumea lan bila, barnekoa, kanpokoa edo gaez. Haur edo zaharren zaintzetan edo garbiketari lan egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziak. Tf: 600390347 -Katy-
- Karmele, 50 urteko euskalduna umeak zaintzeko lan bila. Tf: 687200368
- Umeak zaintzeko eskaintzen da emakume bat. Esperientziaduna Tf: 664156444
- Ordukako lan bila dabilen mutila. Garbiketari eta helduen zaintzan. 603644555

Salgai

- Lokala salgai edo alokagai Pelotari kalean. Tf: 678547840
- Intxaurrak salgai: Pasa den neguko intxaurrak -aurtengoak lehortzen diren bitartean-, etxera eramanda: 3 kilo, 10 €. Patideitu: 634 424 887 edo 943132131.
- Salgai: ohe artikulatua, 1,05 metro, koltxoi eta guzti, egoera oso onean. Aluminiozko taka-taka berri berria. Tf: 661027096
- Etxebizitza salgai arrantzele kalean. Duplex-a, 3 logela, 2 komun, sala, garajea. Permuta beste etxebizitza txikiagotatik ere egin daiteke. Interesatuak deitu 648820190 telefonora.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	2:02 eta 14:17	7:59 eta 20:24	☾
02	2:42 eta 14:58	8:41 eta 21:05	☾
03	3:21 eta 15:39	9:23 eta 21:45	☾
04	4:00 eta 16:20	10:04 eta 22:26	☾
05	4:41 eta 17:02	10:47 eta 23:08	☾
06	5:23 eta 17:46	11:31 eta 23:52	☾
07	6:07 eta 18:34	12:18 eta ____	☾
08	6:56 eta 19:27	0:39 eta 13:09	☾
09	7:51 eta 20:28	1:31 eta 14:07	☾
10	8:55 eta 21:42	2:31 eta 15:15	☾
11	10:13 eta 23:07	3:42 eta 16:33	☾
12	11:36 eta ____	5:02 eta 17:53	☾
13	0:25 eta 12:49	6:19 eta 19:01	☾
14	1:28 eta 13:47	7:22 eta 19:55	☾
15	2:18 eta 14:35	8:13 eta 20:38	☾
16	2:59 eta 15:15	8:56 eta 21:16	☾
17	3:36 eta 15:51	9:33 eta 21:50	☾
18	4:09 eta 16:25	10:08 eta 22:23	☾
19	4:40 eta 16:57	10:43 eta 22:56	☾
20	5:11 eta 17:29	11:17 eta 23:29	☾
21	5:43 eta 18:02	11:52 eta ____	☾
22	6:17 eta 18:37	0:03 eta 12:29	☾
23	6:52 eta 19:16	0:40 eta 13:08	☾
24	7:32 eta 20:00	1:19 eta 13:52	☾
25	8:20 eta 20:56	2:05 eta 14:44	☾
26	9:19 eta 22:04	3:01 eta 15:46	☾
27	10:30 eta 23:19	4:08 eta 16:55	☾
28	11:42 eta ____	5:19 eta 18:01	☾
29	0:25 eta 12:45	6:24 eta 18:58	☾
30	1:20 eta 13:39	7:20 eta 19:48	☾

ZAINZAKO BOTIKAK

AZAROA:

- Ilean, Zulaika
- 2an, Etxeberria
- 3an, Gallo
- 4an eta 5ean, Izipizua
- 6an, Larrañaga
- 7an, Lasa
- 8an, Etxeberria
- 9an, Gallo
- 10ean, Izipizua
- 11n eta 12an, Zulaika
- 13an, Iturria
- 14an, Etxeberria
- 15ean, Iriarte
- 16an, Larrañaga
- 17an, Iturria
- 18an eta 19an, Iriarte
- 20tik 24ra, Lasa
- 25ean eta 26an, Esparza
- 27an, Gallo
- 28an, Izipizua
- 29an, Lasa
- 30ean Iriarte

- **Izipizua:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **Gallo:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz
- **Esparza:** Santuturri plaza, 5. 943 50 47 83 Zarautz



Orio

Kalefood Market

■ Urriaren 28an eta 29an Kalefood Market ikastola ondoko parkean, 12:00etatik aurrera.

Zine emanaldia

■ Urriaren 30ean, Aulki hutsak dokumentalaren proiektzioa, 19:00etan, Kultur Etxean. Ondoren, mahai ingurua.

Hitzaldi ibiltaria

■ Azaroaren 5ean, hitzaldi ibiltaria, Lourdes Odriozolaren eskutik: *Nolakoan Victoria naoa? XVI. mendeko euskal ontzigintza eta Orioko ontziak*. 11:00etan udaletxe aurretik hasita.

Ipuin kontalaria

■ Azaroaren 6an, Miriam Mendoza ipuin kontalaria, 18:00etan, Kultur Etxean.

Mintzalagun programa

■ Azaroaren 9an, AEKren mintzalagun programaren hasiera ekitaldia, 19:00etan, Kultur Etxean.

Ortzaiakako San Martin jaiak

■ Azaroaren 10ean, Neska Mutil Ardoko afaria, 21:00ean.

■ Azaroaren 11n, 10:00etan meza San Martin ermitan; ondoren, toka eta sagar-biltze txapelketa. 17:00etan, Niko Nok pailazoa eta txokolatada. 21:00ean, bertso afaria Oriden jatetxean; txartelak Oridenen eta Kutixin salgai 20 euroan.

■ Azaroaren 12an, herri kirolak, 12:00etan: Idoia eta bere kuadrilla eta Gorka eta bere kuadrillaren arteko erronka.

■ Azaroaren 17an, Mus txapelketa 22:30ean. Izen-ematea 20:00etan.

■ Azaroaren 18an, 5:00etan, baratxuri zopa Oriden jatetxean; 6:00etan, oilasko

biltzaileen irteera. 21:00etan oilasko biltzeko afarie Oridenen Gari eta Iñaki trikitilariekin

Musika

■ Azaroaren 9an, bamberger Symphoniker Donostiako Kurasaalean ikustera joateko autobuza, 20:00etan. Izen-ematea: turismo bulegoan.

■ Azaroaren 22an, Santa Zezilia eguneko ospakizunak kalean Danbolin musika eskolaren eskutik, 17:30etik aurrera.

■ Azaroaren 27an, Xabier Lizasoren kontzertu didaktikoa, 10:00etan, San Nikolas parrokiaren.

Etxeluze Gaztetxea

■ Azaroaren 3an, Falta eta Odolaren mintzoa, 22:30ean.

■ Azaroaren 4ean, Joseba B. Lenoir eta Kaskezurren kontzertua, 20:30ean.

■ Azaroaren 18an, Dispertsioff jaialdia.

Traste zaharrak

■ Azaroaren 15ean eta 29an, traste zaharren bilketa. Aurrez Udaletxera deitu behar da: 943830346.

Black week

■ Azaroaren 24tik abenduaren 1era, Black week, Arkupek antolatuta.

Aia

Kintopeko idi probak

■ Urriaren 31tik azaroaren 6ra, Kintopeko idi probak 22:00etatik aurrera probatokian.

Urdanetako San Martin jaiak

■ Azaroaren 4an, 16:00etan Gorriti eta bere animaliak; Ondoren, txokolate beroa. 21:00etan, bertso afaria Indamendi elkartearen; afalostean bertso saioa eta kalejira frontoira Izer eta Alabier trikiti-

lariekin. 00:00etan Ximor taberna irekiko da goizalderarte.

■ Azaroaren 5ean, 11:30ean meza nagusia; 12:00etan pala finalak; 13:00etan Izeta eskolako harri-jasotzaileak eta Laja eta Lutxurdio trikitilariak; ondoren, auzkoko nagusiekin bazkaria. Bazkal ostean, bertso saioa eta trikiti saioa.

18:00etan kalejira tabernaz taberna; ondoren, Lajari eskertza. 22:00etan Laja eta Lutxurdio Ximorren.

■ Azaroaren 10ean, 22:30ean mus txapelketa azkarra Indamendi elkartearen.

■ Azaroaren 11n, 6:00etan oilasko biltzea Izer eta Alabier trikitilariekin.

12:00etan, meza nagusia. 17:00etan, mozkor olinpiadak zezenekin; jarraina, kalejira tabernaz taberna. 21:00etan, auzo afaria Indamendi elkartearen; afalostean, Izer eta Alabier

■ Azaroaren 12an, 11:30ean, meza nagusia; 12:00etan eskuz binakako pilota finala; ondoren, herri kirolak. 17:00etan idi-dema; ondoren, erromeria Elizagoien ahizpekin Ximorren. 23:00etan erromeria berriz ere; 23:30ean, patatadantza lehiaketa. Odoren, jaien amaierako traka zaratatsua.

Erromeriak

■ Urriaren 29an, Bide batez taldea Aiako Aristerrazuko erromerian, 18:30etik 21:30tara.

■ Azaroaren 1ean Laja eta Narbaiza trikitilariak Aiako Aristerrazuko erromerian, 18:30etik 21:30tara.

Pagoeta

■ Azaroaren 11n, *Pagoeta udazken koloretan irteera*, 10:00etan Iturrarango apartokalekutik abiatuta. Antolatzailea: Iturran parketxea.

Podologoak

■ Azaroaren 25ean podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

ESKATU SASKIAK KARKARAN

Orioko Kultur Etxea -Eusko Gudari 26
943 83 15 27 - karkara@karkara.com

Melokotonak
Pillo piparrak
Olivak
Zisurak
Ardo
Ospina
Pasta
Arroz
Tutak
Melokotonak
Pasta
Tunturto
Pillo piparrak



ZURIA EDO BELTZA

Melokotonak
Pillo piparrak
Olivak
Zisurak
Ardo
Ospina
Pasta
Arroz
Almendrak
Olibo olio
Mediterraneo
Pillo piparrak
Arroz



urriaren 26tik
azaroaren 14ra

eskatu saskiak 50€ren truke azaroaren 14ra arte - jasotakoaren %25 Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara bideratuko da

